KIROLA: GOI MAILAKO PILOTARI ONENAK MAHAIAREN INGURUAN /10

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2004ko urriaren 29a

IV. urtea • 174. zenbakia • DOAN BANATZEKOA

BARRUAN, ZURE HERRIKO ALDIZKARIA

European Newspaper AWARD

Goienkaria

ONDOEN DISEINATUTAKO TOKIKO AGERKARIA EUROPAN

OLVIDO GARA 'ALASKA' / ABESLARIA

"Merkatu librean bizi gara, baina diskoak merkeago sal daitezkeela uste dut" **/9**

Goienka2a

Gari abeslariarekin berriketan, azken diskoa kaleratu berri

ASTEKO GAIA: BOST URTEKO PROZESUA IZANGO DA

Lagun Arotik Osakidetzara aldaketa

Urtetan askoren ahotan izan den zurrumurrua egia bihurtu da: Lagun Arok utzi egingo dio kooperatibetako bazkideei osasun zerbitzu berezia eskaintzeari, eta oraindik horren onuradun diren 15.000 debagoiendarrak Gizarte Segurantzako afiliatu egingo dira urtarrilean.

Egokitze hori epeka egingo dute, bost urtean. Urte hasieran, familia-mediku eta farmazia zerbitzuak hartuko dituzte Osakidetzatik. Oraingoz, hori besterik ez dute jakinarazi Osasun Sailak eta Lagun Arok. Osakidetza eta Debagoieneko Ospitalea indartu beharra izango da. **/3**

Maren, ibarreko ospitaleko ume handiena

Maren Lazpiur Leturia bergararra –argazkian, Miren eta Migel Angel gurasoekin– da Debagoieneko Eskualde Ospitalean azkenaldian jaio den ume handiena, edo gehien pisatu duena: 5,240 kilo pisatu eta 52 zentimetro eta erdi neurtu zuen jaiotzean. **/4**

Maren, amaren besoetan eta aita alboan.

ARGAZKI PRESS

Kalitatea Saria Alberto Iñurrategiri

Kalitatea Sariak 2004 banatu zituzten eguazten iluntzean Donostiako Kursaal jauregian. Kalitatea Fundazioak eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza sailak sortutakoak dira Kalitatea Sariak. Hiru sari banatu zituzten eta haietako bat debagoiendar bati eman zioten: Alberto Iñurrategiri, euskal mendizaletasunaren izenean, Euskal Herriaren irudi ona kanpora ateratzen lagundu duelako. Sari hau Juanito Oiartzabali ere eman zioten. Beste bi sariak jaso zituzten baserriko emakumeek eta Gernikako, Ordiziako eta Tolosako azokek. Sariok Juan Jose Ibarretxe Lehendakariak eman zituen. Ekitaldian Oihulari Klown eta Kukuma antzerki talde bergararrek hartu zuten parte.

'Astelehneko Goienkaria', martitzenean

Oraingo astelehena jai dela-eta, martitzenean banatuko da *Astelehneko Goienkaria*.

Makinak alokatu eta saltzen ditugu
Eraikuntzarako eta obra publikorako

ALKIDEBA

Soluzioak errentan.

Maltzaga bidea – 20590 Soraluze
Tel.: 943 75 15 54 . Faxa: 943 75 00 31

Goitondo industrialdea, 3. pab. 11-2 partzela, 48269 Mallabia – Bizkaia
Tel.: 943 17 13 62 . Faxa: 943 17 14 56

DEBAGOIENA/4-5 • HERRIZ HERRI/6 • IRITZIA/8 • KIROLA/10-11 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • ESKELAK/19 • DENBORA-PASA/20 • TELEBISTA/22

DANBAKA

DEBAGOIENEKO I. MUSIKA LEHIAKETA

SARRERAK

Kontzertuetara joan nahi baduzu,

gaztekutxa

bidez gauzak erraztuko zaizkizu.

Gaztekutxako txartela daukatenek hiru euro balio duen sarrera euro bakarrean eskuratu ahal izango dute (kontzertu bakoitzeko lehenengo bi sarrerak). Horretarako, sartu **www.gaztekutxa.net** helbidean edo www.goiena.net-en, eta eskuratu sarrerak merke.

Gaztekutxa txartelik ez daukazula? Ba zure herriko Kutxako edozein bulegotara gerturatu, eskatu zure Gaztekutxa txartela (ez duzu ezer ordaindu beharko) eta gainera hurrengo kontzerturako bi sarrera oparituko dizkizu Kutxak.

Gaztekutxa bitartez
- Kontzertu bakoitzeko **euro 1**
- 6 kontzertuetarako abonua **6 euro**

Prezioak Espaloian
- Kontzertu bakoitzeko 3 euro
- 6 kontzertuetarako abonua 15 euro

KONTZERTUA

Elgetako Espaloia Kafe Antzokian
Azaroaren 5ean (barikua)
22:30

Denial
(Arrasate-Aretxabaleta)

Dixie 900
(Bergara)

Enboskada
(Arrasate)

Neure baitan
(Arrasate)

SMS MEZUAK

Gustukoen duzun talde, bakarlari edo abestiari lagunduz, zuk ere saria irabazi!

Aldeko SMS gehien jasotzen dituen partaideak Danbaka lehiaketako Entzulearen Saria irabaziko du, eta mezu-bidaltzaile guztien artean honako opari hauek banatuko ditugu:
- 2 lagunendako afari bat Espaloian.
- 10 erosketa-txartel Ganeshan (30 eurokoa bakoitza).
- 6 matrikula Irudi Sport gimnasioan.
- 6 ile mozketa + Manikura Spa + Pedikura Spa, Zirt-Zart ileapaindegian.

Zenbat eta mezu gehiago, irabazteko aukera handiagoa!

Mezuak bidaltzeko jarri:

DANBAKA (tartea) PARTAIDEAREN IZENA eta bidali 7744 zenbakira.

Mezu bakoitzaren kostua 0,9+BEZa.

Taldeen izenak:

-Amonal
-Denial
-Dixie 900
-Enboskada
-Isarevolution
-Izaskun Ojanguren
-Jim TNT
-Los Cretinos
-Malenkonia
-Matxura
-Muted
-N_Oph
-Neure Baitan
-Ostiada Oi!
-Ozen
-Potemkin
-Sharon Stoner
-Stukas
-Supercools
-Turboamor

gaztekutxa · Goienkaria · Kafe Antzokia Espaloia Elgeta · Arrasate Irratia · Mondragon Unibertsitatea · Elgetako Udala · Goiena.net Debagoieneko ataria Interneten · Goitb Goiena Telebista · Jakina Sukaldeak • Bainu gelak Keramikak · Goieskola · Goienkaria · Zirt-Zart · Carrión música · Memesa Industria Hornidurak · Ganesha Tattoo Grow Shop Piercing · Irudi Sport

Urtarrilean pasako dira Lagun Aroko onuradunak Osakidetzara

Familia-mediku eta botika zerbitzuak transferituko dira hasieran

LEIRE KORTABARRIA

Urtarrilaren 1ean, Lagun Aroko 14.675 onuradun debagoiendar Gizarte Segurantzan kotizatzen hasiko dira. Familia medikua Osakidetzakoa izango dute eta botikak Osakidetzaren bidez erosiko dituzte. Hasieran esan zen pediatria zerbitzua ere Osakidetzan jasoko zutela, baina oraingoz, gerorako utzi dute. Onuradunotatik 7.900 inguru Lagun Aroren onuradun zuzenak dira, gehienak kooperatibetako bazkideak; gainerakoak, horien senideak eta erretiratuak. Lakuaren helburua da osasun zerbitzu hori guztiz Osakidetzan txertatzea 5 bat urtean, zatika. Lagun Arori ematen zitzaion finantzaketa publikoa bukatu egingo da, berdintasun egoera bat lortzeko.

Oraingoz, hori da ziur esan daitekeen gauza bakarra. Osasun Saila eta Lagun Aro isiltasun osoz ari dira gai hori lantzen. Kooperatibistak haserre daude: "Geuk egunkarien bidez jakin dugu zer datorkigun. Informaziorik ez digute eman geuri zuzenean. Jendea haserre dago horregatik. Eta baita, bizi osoa zerbitzu hori ordaintzera derrigortuta egon, eta orain kendu egingo digutelako. Erretiratuek dute kalte handiena, izan ere, zahartzaroko arazo guztiekin, zein arduratu behar da horietaz?", diosku Oñatiko onuradun berezi batek. Horien erretiro plan eta abantailak ere bukatu egingo dira, eta Gizarte Segurantzako erretiratuen pareko bihurtuko dira.

ARTXIBOA

Lagun Aro Aseguruak MCCren barne dago, eta kooperatibetako bazkideak Lagun Aroko onuradun ziren automatikoki.

FINANTZAKETA PUBLIKOA

Erabakia Eusko Jaurlaritzak hartu du. Kooperatiba baten gaia gertutik jarraitu duten iturriek diote: "Erabaki politikoa izan da, izan ere, orain arte jarraitzea merkeagoa zen aldaketa honi aurre egitea baino". Kontua da lehen Estatuak erregimen berezi baten zituela Lagun Aro bezalako mutualistak, eta kooperatibistek jasotzen zuten zerbitzuaren %80 berak finantzatzen zuen; urteko 2.900 bat milioi euro. Gero, eskumen hori Lakuari eman zion, eta finantzaketa sistema berare-

Aseguru pribatu horren %80 diru publikotik dator, eta Jaurlaritzak hori etetea erabaki du

kin jarraitu zuten; baina sistema horrek kontraesan nabarmena zuen: alegia, osasun aseguru pribatu baten finantzaketaren zati handi bat diru publikotik zetorren, eta horrek berdintasun eza ezartzen zuen Gizarte Segurantzan edo bestelako aseguru pribatuetan kotizatzen dutenekiko.

HITZALDIEN ZAIN

Osasun Saila eta Lagun Aro batzarrez batzar dabiltza hain prozesu konplexua bideratzeko. Bitartean, bazkideak informazio zain daude. Lantegi batzuetan esan diete hemendik eta abendura bitartean "hitzaldiren bat" egingo dietela. Zalantza handiak dituen beste multzo bat da Lagun Arorekin lan egiten duten medikuak. Horiek ere ezin dute edo ez dute nahi hitz egiterik. "Ez digute ezertxo esan", dio ibarrean Lagun Arorekin bakarrik diharduen mediku batek. Erabakiak hartzen dituztenek datozen hilabeteotan diotenaren zain egongo da ibarreko jende asko.

MEDIKUAK, KEZKATUTA

Lagun Arorekin lan egiten duten medikuek zalantza asko dituzte

Medikuek ere ez dute informazio garbirik etorkizuna zelakoa duten. Lantegietako medikuek diote: "Kooperatibetako langileak garenez, ez Lagun Arokoak, gure lanpostuak berdin jarraituko du", nahiz eta bajak-eta ezin izango dituzten eurek eman.

Bestelakoa da kontsulta pribatuak dituzten mediku espezialisten kasua. Askok, gainera, Lagun Arorekin modu esklusiboan dihardute. "Gure egoera oso delikatua da", onartu digu ibarreko mediku batek. Onuradunek diote: "Osakidetzak ezin izango ditu mediku horiek guztiak bere gain hartu".

LAGUN ARO

Kooperatibisten osasun zerbitzua desagertuko da, ez enpresa

Sortu diren zalantza ugarietako bat da Lagun Arok zein etorkizun duen. Kenduko den gauza bakarra da Lagun Arok kooperatibei ematen zien zerbitzu berezia. Lagun Arok ez du horren gainean oraindik ezer esan, baina kooperatibisten artean komentatzen dute Lagun Arok osasun aseguru berriak oraintxe plazaratu dituela. "Askok uste dugu Lagun Arok, azkenean, aseguru poliza pribatuak eskainiko dituela osasun arloan, eta Sanitas-en antzeko enpresa bihurtuko dela", esan digu Oñatiko afiliatu batek.

ABANTAILAK

Lagun Aroko afiliatuek eta senide zuzenek abantaila handiak zituzten

Urtarrila arte, errezeten %30 bakarrik ordaintzen zuten onuradunek; gero, %40 izango da. Beste abantaila hauek dituzte: mediku espezialista aukeratzea, %80 ordainduta dutela; ebakuntzak estalita; ospitalea aukeran... Itxoite zerrendarik ere ez daukate. Soldataren %33 ordaintzen diote Lagun Arori, bere zerbitzu guztiengatik (osasuna, erretiroa...), eta Gizarte Segurantzan autonomo bezala kotizatzen dute (aurten, 210 bat euro). Semealabak, ezkontidea eta Lagun Aroko erretiratuek zerbitzu nagusiak jasotzen dituzte.

Aldaketak Ospitalean

Bat-batean, 15.000 afiliatu gehiago izango ditu Gizarte Segurantzak gure eskualdean 2005. urte hasieran, eta argi dago horrek gaur egungo sare publikoan aldaketak eskatzen dituela. Berriro ere Osasun Sailak ez du inongo daturik eman nahi izan. Oraintsu bakarrik jakin denez, Osakidetzara pasako den mutualista kopurua, oraindik ez dago kontsulta, ospitaleratze... kopuruen handitzeen gaineko daturik. Baina argi dago Osakidetzako medikuen lan karga handitu egingo dela.

Horrek Debagoieneko Ospitalean eragin handia izango du. Arrasateko udalbatzak proposatzen du beste bat egitea, baina Osasun Sailaren proposamena da dagoena handitzea. Horixe zen baita ere hasieran aukera handienak zituen proposamena. Gaur egun, Debagoieneko Ospitaleak 1.100 m2 inguru ditu erabiltzeko, eta 74 ohe.

Debagoieneko Ospitaleak dio: "Badakigu Eusko Jaurlaritza gogor ari dela lanean Lagun Aroko bazkideak Osakidetzan modu onenean sartzeko. Zalantzarik gabe, Jaurlaritzak eta Gabriel Inclan sailburuak erabakitzen duten moduan, Debagoieneko Ospitaleak zeresan handia izango du, eta bere rola funtsezkoa izango da. Ordura arte, ospitaleari itxarotea besterik ez zaio geratzen".

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko urriaren 29a

GOIENKARIA
Argazkia abenduaren 22an, Arrasateko Santamasetan, ateratakoa da, *Asteleheneko Goienkaria*-ren zero zenbakia kaleratu zenean.

‘Asteleheneko Goienkaria’-k ia 4.100 harpidedun ditu momentu honetan

Gabonetan Mediterraneoan barrena itsas bidaia bat zozkatuko dute

GOIENKARIA

***Asteleheneko Goienkaria*-k 4.071 harpidedun ditu. Orotara, hala ere, 4.400 ale argitaratzen ditu gaur egun *Asteleheneko Goienkaria*-k astero. Izan ere, harpidetza bidez banatzen direnez gain, beste batzuk kioskoetan saltzen dira.**

Iazko abenduaren 22an, Santamas egunean, banatu zen, doan, egubakoitzeko GOIENKARIAren harpidedunen artean, *Asteleheneko Goienkaria*-ren 0 zenbakia. Aurkezpen zenbakia izan zen hura, eta hark ondo erakusten zuen Goienaren proiektu berriak izan gura zuena: gurean asteburuan gertatutakoa inork baino lehen eta sakonago kontatuko zuen agerkaria. Lehenengo zenbakia, ostera, otsailaren 16an kaleratu zen, eta ordutik hona, astelehenero –abuztuan izan ezik–. Urtea amaitu orduko 39 zenbaki kaleratuko dira.

HARPIDETZA KUOTA

Aurten, urtean 25 euroko kuota ordaindu behar izan da *Asteleheneko Goienkaria* astero etxean jasotzearren, eta kioskoan, 0,8 euro aleko. Une honetan ia 4.100 harpidedun ditu *Asteleheneko Goienkaria*-k, baina urtea amaitu baino lehen 4.500etik gertu izango dira.

Harpidedunak herrika

NON	ZENBAT
Bergara	1.250
Arrasate	1.145
Oñati	727
Aretxabaleta	434
Eskoriatza	180
Antzuola	166
Aramaio	34
Elgeta	73
Leintz Gatzaga	4
Kanpoan	58
Guztira	**4.071**

Harpidetza eta banaketaz arduratzen den Goienako sailean dagoeneko prestatzen dabiltza datorren urterako harpidetza kanpaina. Bestalde, banaketan orain arte izan diren huts batzuk konpontzeko ahaleginetan dabiltza.

ITSAS BIDAIA MEDITERRANEOAN

Harpidedunek, *Asteleheneko Goienkaria* etxean jasotzeaz gain, hainbat sari jasotzeko aukera dute. Astero-astero, kultur, kirol eta aisialdiko ekitaldietarako sarrerak, liburuak, diskoak eta beste hainbat produktu zozkatzen dira harpidedunen artean, eta, bestalde, aldiko-aldiko, sari garrantzitsuagoak: esaterako, udan, Karibera bidaia zozkatu zuten —tokatu zitzaienak orain daude Dominikar Errepublikan—; Gabonetan, berriz, Mediterraneoan itsas bidaia zozkatuko dute eta oraintsu Fiteroko bainuetxean bi lagunendako aste bukaera baterako egonaldia zozkatu dute.

Gizarte, ekonomia eta lurralde antolaketa eztabaidagai Arrasaten

AHT Gelditu! Elkarlana taldeak antolatuta, datorren astean izango dira

GOIENKARIA

Debagoieneko AHT Gelditu! Elkarlanak jardunaldiak antolatuko ditu Arrasaten datorren astean, azaroaren 2, 3 eta 4an.

Monterronen izango dira jardunaldiak 19:00etan hasita. Hitzaldi-eztabaida saioak izango dira eta helburua izango da, “gaurko gizarte, ekonomia eta lurralde antolaketa ereduetan, benetako aldaketa bat beharrezkoa dela adieraztea”. Horretarako, eztabaida ahalik eta zabalenak martxan jarri eta “berdintasuneko gune partehartzaile eta erabakigarriak eraiki” nahi dituzte.

Azaroaren 2an, martitzenean, *Kontsumoa eta ongizatea* izango dute berba gai. EHNEko ordezkari bat, Koldo Navascues (EKA) eta Justo de la Cueva soziologoa izango dira eztabaida mahai horretan.

Hurrengo egunean, azaroaren 3an, Gabriel Ibarra eta Roberto Bermejo EHUko irakasleak, eta Alberto Frias Lurra talde ekologistako kidea izango dira eta *Mugikortasuna eta lurralde antolaketa* izango da eztabaidatuko duten gaia. Bukatzeko, azaroaren 4an, *Partaidetza eta erabaki hartzea* izango da mahainguruaren izenburua, eta hainbat talde ekologista eta giza mugimendutako kideek hartuko dute parte.

DEBAGOIENEAN LABUR

Lantegi berria inauguratu zuen Txinan, egubakoitzean, Aretxabaletako Coprecik

100 lagunetik gora egingo dute lan Copreci kooperatibak Txinako Zhuhai hirian zabaldu berri duen lantegian. Joan zen barikuan inauguratu zuten lantegia. Zhuhai hiriko alkatea, Espainiako enbaxadorea Txinan eta Javier Oleaga, Copreci taldeko gerente nagusia, izan ziren inaugurazio ekitaldian. Lantegi berria Hong Kong hiritik gertu dago. Copreci etxe tresna elektrikoen osagaietarako hornitzaile garrantzitsu bilakatuko da. Copreci China lantegiaren jabetza Coprecirena da, eta bi milioi euroko inbertsioa egin behar izan dute.

Jesus Larrañaga zenaren azken liburua aurkeztuko dute azaroaren 10ean

Jesus Larrañaga Arrasateko kooperatiben mugimenduaren sortzaileetakoa izan zenaren azken liburua aurkeztuko dute azaroaren 10ean Arrasaten. *Dilema del cooperativismo en la era de la globalización* da liburuaren izena. Aurkezpen ekitaldian, Patxi Ormazabal Euskadiko Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioaren lehendakaria eta Joseba Azkarraga Justizia sailburua egongo dira.

4.004 kilo jaki batu dituzte Debagoienean behartsuentzat

GOIENKARIA

Elikagaiak beharrik gabe erostearen aurka dagoen gobernuz kanpoko erakunde batek, Gipuzkoako Jakien Bankuak, jakiak batzeko urrian gure ibarrean egindako kanpainan, 4.004 kilo jaki batu ditu.

Hain justu ere, 3.004,7 kilo jaki batu dituzte Arrasateko Hiper Eroskin, ibarrekoek emandakoak. Gehien batu den jakia izan da azukrea, 1.000 kilo, eta Eroskik beste 1.000 kilo azukre ipini du. Hortaz, 4.004,7 kilo batu dituzte.

Azukreaz gain, gehien batu diren jakiak izan dira lekaleak, arroza, pasta, olioa eta esnea: 611 kilo arroz, 566 kilo dilista, 425 kilo pasta, 303 kilo garbantzu, 244 kilo babarrun, 199 kilo olio…

Ekimen horren antolatzaileak oso pozik agertu dira. Izan ere, iaz batutakoa baino gehiago batu dute aurten. Iaz, 3.299,2 kilo jaki batu zituzten Debagoienean. Batutako jakiak premia handia dutenei banatu dizkie. Urriaren 15ean eta 16an jardun zuten Arrasateko Hiper Eroskin janariak batzen. Orain arte, bi urtez ibili dira, iaz eta aurten.

Lagun Arok sukurtsal berria inauguratu du

Lagun Aro aseguru etxeak sukurtsal berria zabaldu du Arrasaten, eta eguaztenean inauguratu zuten. Bezeroekiko gertutasuna areagotzea da helburua, eta, horretarako, lokala aldatzeaz bat, beste berrikuntza batzuk ere egin ditu Lagun Arok. Otalora kalean zabaldu du lokal berria Lagun Aro aseguru etxeak, Arrasaten duen lider postua finkatzeko helburuarekin. Lagun Aro enpresa 1982an sortu zuten, Arrasaten. Gaur egun, 65 sukurtsal ditu Euskal Herrian, 350 lagunek egiten dute lan, 250 mila bezero ditu —horietatik zortzi mila Arrasaten—, eta 140 milioi eurotik gorako fakturazioa du. /GOIATZ ARANA

Bost kiloko umea jaio da Eskualde Ospitalean, azkenaldiko handiena

Maren Lazpiur Leturia izena du jaioberriak eta Bergaran bizi da

GOIENKARIA

Bost kiloko umeak jaiotzea ez da ohikoa izaten. Urriaren 23an, baina, 5,240 kilo pisatu zuen neskatila jaio zen Eskualde Ospitalean. Amari zesarea eginda etorri zen mundura azkenaldian bailarako ospitalean jaiotako umerik handiena.

Maren Lazpiur Leturia jaioberria eta bere guraso Miren eta Miguel Angel Bergaran daude dagoeneko, etxean. Jaiotzerakoan, 5,240 kilo pisatu zuen umeak, baina orain pisua galdu du. Atzo, eguena, egin genuen berba amarekin, eta 4,700 kilo pisatzen duela esan zigun. Ohikoa izaten da umeek jaio ondoren pisua galtzea. Altueraz ere luzea da Maren, 52,5 cmrekin jaio zen. Amak adierazi moduan, proportzio onekoa da neskatila, "pisua badu baina altuera ere bai". Gainera, ama-alabak ondo daude osasunez.



GOIENKARIA

Argazkian, Maren Lazpiur Leturia, Maider lehengusinak besoetan daukala.

ZESAREAZ JAIO ZEN

Miren Leturiari hasieratik esan zioten ume handia izango zuela. Hala ere, amarendako ez zen sorpresa izan. "Ni neu handia jaio nintzen, eta baita anaia ere. Genetikoa izango da". Joan den zapatuan jaio zen Maren Eskualde Ospitalean, amari zesarea egin ondoren. Erditze naturalak zailak izaten dira halako kasuetan, eta Maren zesarea bidez jaio zen. Urriaren 23an atera zuten amaren sabeletik azken hiru urteetan Debagoienean jaiotako umerik handiena.

Bost kilorekin jaio bazen ere, pisua galdu du ordutik hona: orain, 4,700 kilo pisatzen du

Ezustekoa ez denez izan, amak hasieratik gertu zituen neurriko arropak. "Bi hilabeteko ume bati dagozkion arropak janzten dizkiot".

BERGARAKO IKUSMIRA

Kalera ere atera dute dagoeneko Maren jaioberria, eta horrelakoetan gertatzen den moduan, asko dira umea ikusi nahi dutenak. "Umea ikusteagatik kobratuko bagenu...", dio amak. Bien bitartean, ume jaioberri batek egiten dituen gauzak egiten jarraitzen du Marenek: titia hartu, lo egin... Handi jaio da, ikusi egin behar aurrerago hala jarraitzen ote duen edo ez. Amak, behintzat, ez dio kontu honi garrantzi handirik eman nahi: "Umea, behintzat, ez dut txikitatik traumatizatu nahi".

EZ DA OHIKOA

%0,1 jaiotzen dira bost kilo baino gehiagorekin

Jose Ramon Serranok, Eskualde Ospitaleko Ginekologia Saileko arduradunak, adierazi digunez, oso txikia da bost kilo baino gehiagorekin jaiotzen diren umeen ehunekoa, %0,1 soilik. Azken aldiz, duela hiru bat urte jaio zen bailarako ospitalean bost kiloko muga gainditu zuen umea. Erdiak zesarea bidez jaiotzen dira.

GENETIKAN DAGO GAKOA

Handi jaiotzeak ez du esan nahi gero ere izango denik

Adituaren berbetan, umearen genetikan eta gorpuzkeran dago hainbesteko pisuarekin jaiotzeko arrazoia. Gainera, ezin esan daiteke handi jaiotzeagatik handia izango denik gero ere. "Bi edo hiru kilorekin jaiotako ume batek NBAn joka dezake, eta bost kiloko batek beharbada ez du behar besteko altuerarik izango.

JAIOBERRI GEHIAGO

Aurten 500 ume baino gehiago jaioko dira

Eskualde Ospitalean pozik daude, aspaldiko partez 500 erditzeen muga aurten gainditu dutela espero baitute. Serranoren arabera, urtea bukatzerako, 510 ume jaioko dira gure eskualdean. Euskadi guztian ari da gora egiten jaioberrien kopurua, eta baita Debagoienean ere. Urtarrilean jakingo da kopuru zehatza.

Kutxazainetan erabiltzen dugu euskara gehienbat

Euskadiko Kutxak kaleratu dituen datuen arabera

GOIENKARIA

Banketxeetako kutxazainetan zenbait debagoiendarrek euskaraz egiten ditu eragiketak. Gutxiago dira, berriz, banketxeek bidalitako gutunak euskaraz jasotzen dituztenak. Hala ondoriozta daiteke Euskadiko Kutxaren datuetatik.

Iñaxio Garro Euskadiko Kutxako Euskara arduradunaren ustez, apurka-apurka euskara ari da banketxe eta bezeroen arteko harremanetan indarra hartzen. Hala ere, jarraian datozen datuek garbi erakusten dute gaztelania askoz gehiago erabiltzen dela.

Duela urte bi hasi zen Euskadiko Kutxa bezeroekin gutun bidezko harremana euskaraz izateko aukera eskaintzen. "Kutxazainetan euskara erabiltzen dutenei idatzia bidaltzen diegu, gutun bidezko harremana ere euskaraz eduki nahi ote duten galdetuz. Gaur egun, Euskadiko Kutxako bezeroen %6k egiten dute aukera horren alde. Asmoa da hiru urte barru euskarazko aukeraren alde bezero gehiagok egitea".

KUTXAZAINETAN ERRAZAGOA

Kutxazainetan egiten ditugun eragiketak sinpleagoak izaten direla eta, errazagoa izaten da euskara aukeratzea. Iñaxio Garrok esan bezala, idatziz etxeetara bidaltzen diren gutunak zailagoak izaten dira. "Esate baterako, errenta aitorpena euskaraz jasotzeak ez du zerikusirik kutxazainetan egin dezakegun eragiketa batekin. Idatzizko harremanak euskaraz ondo jakitea eskatzen du, euskarazko eta gaztelaniazko idatziek tratamendu bera jasotzen baitute". Era berean, eta beste eskualde batzuekin konparatuz, Iñaxio Garro Euskara arduradunak azaldu digu Debagoienean euskara gehiago erabiltzen dela.

Euskadiko Kutxako bezeroen %6k dute une honetan gutun bidezko harremana euskaraz

Idatzizko harremanak bideratzeko hizkuntzak

HERRIA	GUZTIRA	% ELE BITAN	% EUSKARAZ
Antzuola	1.685	%77,03	%22,91
Aramaio	1.152	%84,03	%15,97
Aretxabaleta	4.655	%80,84	%19,10
Arrasate	15.815	%85,19	%14,55
Bergara	8.517	%87,79	%12,11
Elgeta	365	%87,12	%12,88
Eskoriatza	2.622	%86,23	%13,65
Leintz Gatzaga	198	%84,85	%15,15
Oñati	7.714	%80,44	%19,46
Debagoiena	**42.723**	**%84,10**	**%15,75**

Kutxazainetako eragiketen hizkuntza

HERRIA	GUZTIRA	EUSKARAZ	% EUSKARAZ
Antzuola	2.822	1.173	%41,57
Aramaio	1.525	487	%31,93
Aretxabaleta	11.758	3.403	%28,94
Arrasate	52.376	12.358	%23,59
Bergara	16.128	3.674	%22,78
Eskoriatza	6.053	1.343	%22,19
Oñati	15.115	4. 764	%31,51
Debagoiena	**105.777**	**27.202**	**%25,71**

Elgeta eta Leintz Gatzagan ez dago sukurtsalik.

Txinatar jatetxea
DRAGON ORIENTAL
東方龍
Eskatu eta
20 minutura
janaria zure etxean
•Ostiral eta zapatu gauetan izan ezik
•Gutxieneko eskaria 12 euro
•1,8 euro etxera eramateagatik
Arrasate eta Aretxabaleta
943 79 85 33
Araba etorbidea 3 ARRASATE

GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA
Boni Laskurain 3
BERGARA
943 76 35 71
Ile kalitate bakoitzerako laser bat:
•Alexandrita laserra
•ND:YAG:
•Fotodepilazioa (argi pultsatua)
Proba DOAN ordua eskatuta
DEPILTOTAL Sarearen zentro gertukoena
Azkarra, etengabea eta segurua

KUDEAKETA TEKNIKARIA
ADMINISTRAZIO OROKORREKO KUDEAKETA TEKNIKARI bat kontratatu nahi da praktikazko modalitatean eta aldi baterako.
Baldintzak:
- Unibertsitateko diplomatura, 4 urte pasatu ez direla
- Euskara jakitea, 3. HEren parekoa.
Izena emateko epea: urriaren 30etik azaroaren 8ra arte (biak barne).
Oinarriak: udaletxean eta web orraian jaso daitezke: www.arrasate-mondragon.org
ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
Pertsonal Saila

ANTZUOLA

‘Hitzak patriketan’ antzezlana egingo du etzi, domeka, Hankatxo taldeak

Etzi, domeka, arratsaldeko seietan, *Hitzak patriketan* antzezlana eskainiko du Hankatxo taldeak Olaran etxean. 3 eta 9 urte bitarteko umeei zuzenduta dago ikuskizun hori; Iñaki Beraetxe eta Aizpea Goenaga aktoreek jardungo dute emanaldi horretan.

Barbara labezomorroa, *Agustina* oiloa eta *Pepa* neskatoa dira antzezlanean kontatzen diren istorioko protagonistak.

Hiru ataletan banatuta dago antzezlana; *Izenak*, *Zenbakiak* eta *Koloreak* dira atalok. /AINTZANE IRIZAR

EDU MENDIBIL

BERGARA

Aspacek Oxirondo plazako egoitza estreinatu du

Aspacek Oxirondo plazako egoitza berria zabaldu du. Bergaran dituen bi lokalak zabalik edukiko ditu Aspacek, itxaron zerrendan hainbat lagun dira-eta. Orain, berritze lanak egingo dituzte Ibaiondoko lokalean eta, azaroaren bukaera aldera, Aspaceko 17 lagun Oxirondoko lokalean geratuko dira eta beste 15 lagun Ibaiondon egongo dira. Lokal bakoitzean lau monitorek jardungo dute.

Dagoeneko 27 urte dira Aspaceko egoitza Bergaran zabaldu zutela. Debabarreneko eta Debagoieneko gutxitu psikikoak biltzen ditu Bergarako egoitzak. Euren zeregin nagusietako bat otarregintza lanak egitea da. Produktuok Estatu osoko Eroski dendetara zabaltzeko ahaleginetan ari dira. /E.M.

ARETXABALETA

Atarietako oharrak euskaraz jartzeko liburuxka banatuko du Udalak

Askotan gertatzen da atarian bizi direnei oharren bat jakinarazi edo bilera baterako dei egin nahi zaiela, baina oharrak euskaraz jartzeko eredurik ez dugula. Lan horretan laguntzeko, Debagoieneko Mankomunitateak liburuxka bat kaleratu berri du. Bertan hainbat eredu jasotzen dira, bilera deiak eta atarietan jakinarazi behar diren beste hainbat kontu euskaraz jartzeko.

Hori dela eta, Udalak atariz atari banatuko ditu liburuxkak, baina Udaleko Euskara Sailean ere izango dira eskuragai. /M.A.

ARAMAIO

Bihar, zapatua, Erretiratuen Eguna ospatuko dute, azoka eta guzti

Goizean, trikitilarien doinuek iragarriko dute Erretiratuen Eguna heldu dela. Eta ordurako Nardeaga kalean gertu izango da azoka. 12:00etan, berriz, urtean hil diren erretiratuen aldeko meza esango dute parrokian. Horren ostean, Lagun Artean dantza taldekoek erakustaldia egingo dute. Eta 14:30ean erretiratuendako bazkaria izango da, kiroldegian. Txartelak 6 eurotan egon dira salgai udaletxean eta auzoetan, besteak beste. Bazkalostean dantzaldia eta opari banaketa egingo dituzte. /U.M.

ARRASATE

Datorren urteko udal zergak %3,5 igoko dituztela iragarri dute

Astelehenean osoko bilkura egin zuten Arrasaten. Hainbat gai garrantzitsu landu zituzten. Datorren urteko zergak, esaterako, %3,5 igoko dituzte.

Orokorrean zergek halako igoera izango duten arren, salbuespen batzuk badira. Honako hauek, besteak beste: jarduera ekonomikoek %7ko igoera izango dute. Horrez gain, ibilgailuei igoera orokorra ezarriko zaie; motorrei, berriz, 2,2ko koefizientea aplikatuko zaie. Modu berean, hobariak aplikatuko dizkiete zailtasunak dituztenei eta 25 urtetik gorako ibilgailuen jabeei.

Eraikuntzarekin lotutako zergetan ez dute igoerarik aplikatuko. Eta baserrietan lanak eginez gero, %90eko eta %50eko hobariak izango dira; Bizigune egitasmoaren barruko proiektuendako, berriz, %50eko hobaria izango da.

Zaborrei dagokienez, izango den aldaketetako bat da hemendik aurrera ordainagiria hiru hilean behin kobratu beharrean, sei hilean behin kobratuko dutela. Hala, etxerako zerbitzuak %20ko igoera izango du (urtean 8,6 euro gehiago, edo bestela esanda, sei hilero, 25,8 euro); saltoki eta ostalaritzako zerbitzuak %45eko igoera. Eta industria jarduerek %90eko igoera.

Ur tasari dagokionez, lau laguneko familia batek 10 euro gehiago ordaindu beharko du hiru hilero. Bost lagunetatik hasi eta bederatzi lagunera arteko familiek, berriz, ez dute igoerarik izango. /UBANE MADERA.

Zertzelada

Hilerriko zerbitzuak, oro har, %3,5 garestituko dira. Horren arrazoia da petrolioaren garestitzearen eraginez erraustegia garestitu egingo dela

OÑATI

Bizikleta aparkalekuak jarri dituzte kultura etxearen parean

Bizikletak uzteko aparkalekuak jarri dituzte kultura etxearen aurrealdean. Ia 30 bizikleta aparka daitezke horretarako jarri dituzten aparkalekuetan. Orain arte, kultura etxearen ate ondoan uzten zituzten bizikletak, toki egokirik ez zegoelako.

Kultura etxearen parean jarri dituzte bizikletendako aparkalekuak. Inguru horretan, gainera, autoa aparkatzeko toki askorik ere ez da izaten sarritan, eta kultura etxera doazenak ez ezik, azokara zein eskolara doazenak ere erabil ditzakete. Bestetik, bidegorriaren eskaerarekin lotuta, horren gaineko proiektua lantzen dabil Oñatiko Udala. /O. E.

O.E.

Ia 30 bizikleta aparka daitezke.

ESKORIATZA

Hilerriko hormak konpondu eta Leteko bidea itxiko dute hogei egunez

Datorren astean Eskoriatzako hilerriko alde zaharreko hormak konpontzen hasiko dira, txarto daudeeta. Hala, Udalak konpontzea erabaki du. Datorren astean hasiko dituzte lanak. Frixi Eraikuntza Enpresari esleitu dio Udalak hormak eraberritzeko ardura.

Bestalde, azaroaren 2an Lete auzora doan errepidea itxi egingo dute hogei egunez. Hileta egunetan izan ezik, kanposantura Olazar auzotik joan beharko da, oinez. Hileta egunetan behin-behineko bide bat egokituko dute. /Z.V.M.

ELGETA

Txaranga eta antzerkia asteburuan herriko kaleak alaitzeko

Kaleko giroa alaitzeko asmoz bi kultura ekitaldi antolatu ditu astebururako Udalak. Urriaren 30ean kale antzerkia izango da plazan, 19:00etan, Trapu Zaharra taldearen eskutik. *El pisito* lana antzeztuko dute elgetarren aurrean. Emazteengandik banandu ostean, karabana batean elkarrekin bizi diren bi gizonezkoren istorioa kontatuko dute antzerkian. Bestalde, domekan, Sugarri fanfarreak herriko kaleak alaituko ditu bere musikarekin 12:30etik 14:30era bitartean. /I.A.

LEINTZ GATZAGA

Gazte eta helduen pilota partiduak izango ditugu asteburu honetan

Pilota partiduak jokatuko dituzte asteburu honetan Gatzagan. Bihar, 17:00etan hasiko dira norgehiagokak. Gatzagarrek bikoteak egin dituzte; hala ere, kanpotik etorritako bikotekidea duenik ere bada. Kanporaketak jokatuko dira bihar.

Gazteek osatutako taldeak hasiko dira jokatzen. Ondoren, nagusien txanda izango da. Eguna amaitzeko, afaria egingo dute parte-hartzaile guztiek. Domekan, 17:00etan hasita, finala jokatuko dute. Amaitzeko, opariak egongo dira guztiendako. /Z.V.M.

Egin zaitez *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun, eta Mediterraneoan zeharreko bi lagunendako itsas-bidaiaren zozketan parte hartu ahal izango duzu.

Ez galdu aukera. Harpidetu zaitez!

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.
Urte amaierara arteko harpidetza: **10** €

ASTELEHENEKO **Goienkaria**
astelehenean, **aste bukaera osoa**

Laguntzailea: VIAJES IBERIA

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko urriaren 29a

Gutunak

Ez naiz isilduko!

Ulertzen dizut, Ander (EB), krispazioak eta amorruak hartua zaudela diozunean. Neu ere horrela sentitzen bainaiz, ezker abertzaleko kideak atxilotu, askotan torturatu eta sarritan akusazio faltsupean urte luzeetarako espetxeratuak izaten direnean. Eta justiziak eta klase politikoak beste aldera begiratzen duzuenean.

Hasteko, historiari aipamen txiki eta aberasgarri bat egin nahi nioke, ez gerra irabazi zutenek idatzitakoari, herriaren oroimenean geratu denari baizik. Komunistek, sozialistek, errepublikanoek, anarkistek, nazionalistek... bat egin zuten 36ko gerran frankismoari aurre egiteko. Diktadura ondoren, eta trantsizioa martxan jarri eta 25 urte beranduago, zer motatako trantsizioa eman zen ikusita; Borboien figura eztabaida ezinak, ejerzitoan, polizian, justizian eta klase politikoan egin ez ziren berrizketa eta ardura garbiketek... gaur eguneko demokrazian kokatzen gaituzte.

Gaur, frankismoaren aurka aritu ziren hainbat sektore daukagun demokrazia kudeatzen zein eroso zabiltzaten ikusteak zuen oinarrizko ideietan aldaketa nabariak egon direla erakusten du. Euskal Herriak bizi duen salbuespen egoera, lege antidemokratiko eta jazarpen polizialak, zein, herri honen eta bertakoon aurkako errepresio gogorraren aurrean hartzen dituzuen jarrerak, horren lekuko.

Bai, hitzez badiozue egoera hauen aurka zaudetela, baina ekintzak dira eta ez hitzak pertsonak modu batekoak edo bestekoak egiten gaituztenak. Kiroltasun osoz ari zarete bai politikagintzan, egoera antidemokratiko honen erantzuleekin batera, eroso. Honek, nire uste apalean, zuen helburua politikatik karrera egitea dela agerian uzten du. Zu zeu ere abila zara horretan. Politika alorrean "mugitzen" ohituta zaudela diozun arren, daramazun denbora eskasean, jada egun erdiko diru saria ere jasotzen duzu, Arrasateko Udalean egiten duzun lanaren truk. Bide horretatik jarraituz, zure alderdikide eta herrikide den Martin Calvoren (EBko idazkari instituzionala) parera ere helduko zara, ez etsi.

Hala ere, ezker abertzalean edo zuk diozun MLNVn militatzen dugun gizonemakumeon helburua ez da inolaz geure karrera politikoa egitea. Karrera politikoa egiteko modu bitxia bestela 700 preso politikoena, milaka iheslariena, erbesteratuena, torturatuena edota gatazkaren ondorioz hil diren gure biktimena, ez? (azken hauek omentzeko irailaren 27an, kudeatzen duzuen poliziaren jarrera, ez al da ezker ikuspegitik kontraesankorra? Eta ikuspegi demokratikotik?).

Herri honentzako independentzia eta sozialismoa lortzea da gure helburua. Bide horretan, gatazka politikoa gainditzeko, autodeterminazio eskubidea da benetako eta ezinbesteko berme demokratikoa, eta horri bideratua dago gure jarduna; nazio hau eraikitzen joatearekin batera.

Hala ere, estatuetatik diseinaturiko erasoen aurrean ez gara begira geldituko eta erantzuten jarraituko dugu, baita egoera horietarik etekina atera edo eta egoera hori kudeatzen duzuenon jarrera salatuaz ere. Ez da, beraz, zure idatzian diozun bezala, faltsua eta kontraesankorra ezker abertzalearen jarduna; gatazka konpontzeko indarrak biltzen saiatzea eta herri honen eskubide demokratikoen aurkako eraso eta gestioen aurrean salaketa edo erantzuna ematea.

Jarraituz zure idatzian diozu bazegoela aukera oztopo legislatiboa ekiditeko. Ez litzateke hori onartzea gure ideiak eta jardun politikoa ilegalak direla? Eta, bide batez, lege frankista hori zilegia dela onartzea? Oraindik ere, borondatea egonez gero, badago egoera hau aldatzerik. Prest egongo litzateke Arrasateko EB Lizartzan EAJrekin adostu zen bideari ekiteko?

Diozu, herri honek ez duela MLNVk momentu bakoitzean hartzen duen estrategiaren arabera jokatuko. Eta ez zarela sartuko legitimitateen kontuan, "esne saltzailearen" ipuinaren pare jarriz. Badakit ez daukazuela egoera honen aurrean ezer egiteko asmorik. Ikusten dudalako zein den zuen helburua, eta zuen ezkertiar jarduna (hau bai dela benetan faltsua). Modan jartzen diren klitxeez gain (*gerrarik ez!; Nunca mais!; Etxebide!*), ez daukazue egoera ez demokratiko eta neoliberal hau aldatzeko inolako asmorik, zuen karrera politikoa eta komodidadea erakargarriagoak direlako, borroka eta konpromisoa baino.

Diozu lehen aldia dela honen inguruan idazten duzula, ba, gezurra borobila! Zuk sinaturiko *Egia aldatuak* artikuluan ere legez kanporatzearen gaiaz aritu zinen. Orduan ere, hainbat kritika egin zenituen ezker abertzalearen aurka. Artikulu bietan, ordea, ez zaitut irakurri ideiak legez kanpo uzten dituen legeaz hausnarketa sakonik egiten. Ezta irtenbiderik planteatzen ere.

Euskaraz ongi idazten duzu eta horrek poztu egiten nauela, zoritxarrez udalbatzetan gure hizkuntza ez entzutea (gu kanporatu gintuztenetik hain zuzen) penagarria dela deritzot. Literatura gogoko duzunez, Artzek utzi zigun esaldi famatu harekin eta agur iraultzaile batekin agurtzen zaitut. Euskal Herrian bizi dugun gatazka gainditu eta gizarte justu baten aldeko borrokan, berriz, elkar ikusiko dugulakoan. *Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik.*

Ondo bizi!

ATARRATZ ETXEBERRIA
Arrasate

Lapurrak!

Onartu beharra daukat nik ere sail honetara hurbiltzeko zaletasuna daukadala, baina ez idazteko, irakurtzeko baizik. Noizbait gertatu izan zait izugarrizko astakeriak irakurri, amorruz bete, eta erantzun beharrean nire zereginetan jarraitzea hor esandakoak erantzun bat jaso gabe bertan geratzen direlarik. Oraingoan, ziur nago Ander Rodriguez-ek sinatutako gutuna ez dela erantzun gabe geratuko, ezta erantzungo dion bakarra izango naizenik.

Ezkertiarra baldin bazara, guztiok bozka emateko eta gure ordezkariak bozka horien arabera edukitzeko eskubidearen aldekoa izango zarelakoan nago. Hau dela-eta, Arrasateko Herri Anitzak jaso zituen 2.716 botoekin lau zinegotzi eduki beharko lituzke Arrasateko Udalean. Legedi faxista bat medio, lau zinegotzi hauek kalean daude eta 2.716 arrasatear beraiek aukeratutako ordezkaririk gabe daude gaur egun. Lege honen aurrean, zenbait alderdi (zuek barne) aurka azaldu zineten bere garaian, askatasun demokratiko minimoenak ere urratzen baitzituzten.

Eta hemen dago koska. Nola liteke legedi horren aurka egonda legedi hori aprobetxatzea beste eserleku bat lortzeko? Horri hipokresia, duintasun falta edota poltronerismoa deitzen diot nik.

Bizitza publikoko edozein organizazio, mugimendu edo alderdik kritikatua izateko arriskua duela diozu; baina horrek ez duela eraman behar akusazioak pertsonalizatzera. "Egileen zitalkeria morala onartezina dela" kide bati "jazarpen biolentzi egitea", eta "estrategia zikin horrek ez duela zikinduko Jose Antonio Baz-en zintzotasun eta ontasuna", diozu.

Pertsona konkretu bat izan da Arrasateko herritar kopuru garrantzitsu baten aukera mesprezatuz, beraiek aukeratutako pertsonaren aulkian jarri dena. Hau, gainera berak nahi izan duelako (edo behartu egin al duzue alderdikideok?). Zitalkeria morala ez ote da egongo gauza bat esan eta beste bat egiten dutenengan?. "Jazarpen biolentzia" al da, norberaren pentsaera azalarazteko aukeratutako pertsonari, zinegotzi postua lapurtu dionari lapurra deitzea? "Estrategia zikina" omen da lapurrari lapur deitzea. Eta tokatzen zaizuen baino zinegotzi gehiago edukitzea, besteoi ahots gabe utziz, estrategia garbia al da? Ez dut uste pegatina horren egileen helburua J.A.B.-en zintzotasun eta ontasuna zikintzea denik, bere jarrera azalaraztea baizik. Are gutxiago, uste dut, gauza bat esan eta beste bat egiten duena, zintzoa eta ona denik.

Aurrerago, "MLNVren diskurtsoa faltsua eta kontraesankorra da: esku batekin elkarrizketa eta indar batzea bilatzen ditu... baina bestearekin ahalegintzen dira eraso egiten euren legez kanporatzeari oposizio argia azaldu dutenei, dimiti dezaten".

Ezker abertzalea azkeneko urteetan su eta gar ari da bake proposamenak plazaratzen, gatazka honetako sufrimendu parte garrantzitsu bat berari tokatzen zaiolarik beste batzuk oso eroso bizi diren bitartean. Eta, nire ustez, ez da pisu hori gainetik kentzearren, herri justu eta aske bat lortzearren baizik. Gainera, laster beste proposamen serio zein garrantzitsu bat plazaratuko dutela jakin berri dugu.

Eta "legez kanporatzeari oposizio argia" Herri Anitzari zinegotzia lapurtzea bada, ni atzo Saturnon erosketak egiten egon nintzen. Beste modu batera esanda, ez da eskatzen dimisioa "legez kanporatzeari oposizio argia azaldu dutenei", beraiena ez den eserlekuan jarrita daudenei baizik.

Bestalde, aspertuta nago legez kanporatzearen ardura pairatu duenari leporatzeaz. Bideak zeudela "oztopo legislatiboa ekiditeko", diozu. Masoka deitzen al zabiltzate ezker abertzaleari?. Ezker abertzalea egoera honetan egotea nahiago duela uste al duzue?

Tontakeriak eta adar-jotzeak utzi alde batera eta esplikatu iezadazu zein den bide hori eta gero egon ziur zerbait esateko izango dudala. "Mamuak ikusten dituzue leku guztietan", diozu. Mamuak ez: polizia bereziak, ordu berezietan, lege bereziak aplikatuz atxiloketak egiten ikusten ditugu, gero atxilotua egoera berezietan "mantendu" eta epai berezietatik pasa ondoren kartzela egoera berezietan sakabanatzeko. Egoera ez da txantxetakoa oraindik eskubide txikienak ere txikituak dutenei adarra jotzera etortzeko.

Bukaeran, "etorkizunean, seriotasun handiz baloratuko dut nire jokaera kanpaina zikin horiek sustatzen dituzten pertsona eta taldeekin", diozu. Eta nola baloratu behar du legedi faxista batek bozkatzeko eta bozkatua izateko eskubidea ukatua duenak? Txantxa balitz bezala? Ez, jauna! Zuk diozun bezala, seriotasun handiz. Gertatzen dena da zuek ere aurka omen zaudeten legedi horrek kalte egiten ez dizueten bitartean zuei bost axola dizuela, eta gainera eserleku bat gehiago lortuz gero... zer egingo dugu ba? (eta tonto aurpegia jarri).

Orain zuen jokaera kontraesankorra edota duintasun faltakoa aurpegiratzen zaizuenean (zuk "zitalkeria morala" deitzen diozu honi) asaldatu egiten zara? Hobe izango zenuke legedi faxista honen aurrean hitzez eta ekintzez bat egin eta ez diskurtso polita eduki baina interes poltroneroaz jokatu. Eta ez daukazu Alaskara joan beharrik zer egin dezakezuen jakiteko. Arrasateko Udaleko pleno aretoko zure eserlekutik ez oso urrun daukazu adibidea.

Nire idatziaren asmoa da zure idatziari erantzutea edota egoera ahal dudan garbien azaltzea. Orain, hala nahi izanez gero, horrenbeste buelta eman gabe, erraz labur dezaket guztia: lapurrak!

AITOR ELORTONDO
Aramaio

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Arantzazu Arana

SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Natali Martínez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Amaia Mundiñano

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola

ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Olvido Gara, 'Alaska'

MUSIKARIA

"Merkatu librean bizi gara, baina diskoak merkeago sal daitezkeela uste dut"

Halloween gaua Bergarako Jam aretoan ospatuko du aurten Fangoria taldeak. Aste honetan bertan kaleratu duten lana aurkeztuko dute. 80ko hamarkadaz, ordenagailuez eta musikaz hitz egin dugu Olvido Gararekin.

OIHANA ELORZA

GOIENKARIA

Aurrera genezake nolakoa izango den domeka gauean Jam-en emango duzuen kontzertua?

Festa egingo dugu, ez kontzertua bakarrik. Halloween gaua ospatuko dugu. Guretako, oso gau berezia da Halloween gaua, Fangoria sortu genuenetik ospatzen dugu, duela 15 urtetik hona.

Fangoria taldea 1989ko Halloween gauean aurkeztu genuen eta harrezkero ia urtero ospatzen genuen egun hori. Baina gauza bat askotan egiten duzunean, aspergarri egiten da. Beraz, ospatzeari utzi genion. Baina hurrengo urtean, trabesti festa bat eginez ospatzea pentsatu genuen. Ideia horrekin, ia urte osoa pasatzen dugu Halloween gauean zein mozorro jantzi pentsatzen eta kontzertua eta festa nola antolatu erabakitzen. Bartzelonan eta Zaragozan ospatu dugu orain arte, eta domeka honetan Bergaran egingo dugu.

Baina ez zarete bakarrik egongo.

Ez, ez, lagun asko gonbidatu ditugu: Madril eta Bartzelonako lagun asko eta baita Bilboko Arakis ere. Gainera, guztiok *pintxatuko* ditugu diskoak. Talde batetik bestera ez da musika etenik egongo, etengabe entzungo da musika eta festa erraldoia izango da.

Ezagutzen eta gustatzen zaizkigun musikari eta lagunak datoz gurekin batera Halloween gaua ospatzera. Ondo antolatutako festa dibertigarria izango da.

Hogei urte baino gehiago dihardu zu musikan eta ia denetarik egin duzu: punka, popa, technoa...

Kontatzen hasiz gero, ia 30 urte egin ditut dagoeneko saltsa honetan, bai.

Dena batera egiten dugu guk, musika estilo guztiak nahasten ditugu. Ezinezkoa da estilo batetik bestera bat-batean pasatzea. Agian, musika jotzen ikasi genuenean hasi ginen kantu bat estilo batekoa eta hurrengoa bestekoa egiten. Musika egiten ikasi genuela konturatu ginen, eta zoragarria izan zen bolada hura: estilo guztietako kantuak egin nahi genituen, buruan genuen guztia musikatu nahi genuen. Pegamoides etaparen bukaeran eta Dinaramaren sasoian gertatu zitzaigun hori. Kontzertuak eginez ikasi genuen jotzen eta beste era bateko kantuak ere egin genitzakeela ikusten genuen, heavy edo metal kantuak, adibidez.

Eta dena gustatzen bazaizu, zergatik ez duzu dena nahastuko eta sartuko? Marilyn Manson eta Pet Shop Boys nahas ditzakezu, lasai asko. Zergatik ez?

Estilo aldaketak era duinean egin dituzula diote zure jarraitzaileek.

Zuri The Ramones gustatzen bazaizu, 30 urte pasa ondoren ere The Ramones taldea gustatu egingo zaizu. Aldaketa ez da bat-batean gustatu zaizun taldea edo musika dagoeneko ez duzula atsegin. Aldaketa da The Ramones musika merkaturatu den beste talde baten musikarekin nahastea. Technoa ere egiten zen guk 13 urte genituenean.

Horrela lortu duzu jarraitzaileak gustura uztea?

Asko esatea da hori. Orain batzuen gustukoa izan arren, erabat alda dezakete iritzia hurrengo lanarekin. Eta Dinarama bai baina Fangoria maite ez dutenak ere egongo dira, noski.

Baina inoiz ezin duzu horretan pentsatu, zuk egiten duzuna beti euren gustukua izango ote den. Publikoa ez da masa homogeneoa, ezta oso jarraitzaile fidelak direnak ere. Niri ere gertatzen zait bat-batean David Bowie ez gustatzea, baina arazoa nirea da, ez berea. Zuk zeuk egin behar duzuna egin behar duzu eta jende askorengana ez bada iristen ere, ez du axola.

DISKOEN ETA DIRUAREN GORABEHERAK

"Badakigu ze den milioi bat disko saltzea eta baita diskoa geuk atera behar izatea ere, inork kaleratu nahi ez zigulako. Moldatzen ez dena egiten duena gustatzen ez zaiolako da "

PIRATERIA ETA MUSIKA INDUSTRIAREN EGOERA

"Pirateria musika industriaren arazo handienetakoa da, baina ez da bakarra. Gainera, diskoak saltzeko sortu diren multinazional berak sartu dira kopiatzeko merkatuan"

Beti izan zara oso fidela zure irudiari eta zure nortasunari.

Nik ez dut irudirik eta ezin naiz inori fidela izan, ez dut neure burua beste era batean ikusten-eta. Nik ez ditut bi armairu, beraz, ni neu naizen moduan joaten naiz toki guztietara.

Norberak nahi duena egin behar du beti, une bakoitzean egin behar duena uste duen hori, gustatzen zaion hori eta egin nahi duen hori. Erratu arte. Hala ere, hori oso erlatiboa da eta hortik ere ikasi egiten denez, uste dut bat ez dela inoiz erratzen, kontzientzia trankil badu.

Diruaren gorabeherak zer diren ondo dakizue.

Nacho Canut eta biok sekulako zortea dugu gustatzen zaiguna egiten dugulako. Banatzen diren talde askok diote diskoa inork argitaratu nahi ez dielako banatzen direla. Ba eurek atera dezatela, guk ere horixe egin genuen-eta. Guk badakigu zer den milioi bat disko saltzea eta baita diskoa geuk atera behar izatea ere, inork kaleratu nahi ez zigulako. Badakigu zer den denek kontratatu nahi zaituztela ikustea eta baita kontzertuak norberak antolatu behar izatea ere. Moldatzen ez denak egiten duena benetan gustatzen ez zaiolako dela uste dut.

Diskoetxe txikiekin egiten duzue lan sarritan. Badu abantailarik?

Etxe handiekin ere egin dugu lan, baina berriro diot, arazoa norberarengan dago. Guk, adibidez, etxe handiei ere inoiz ez diegu ez maketarik, ez diskoaren azalik ezta kanturik ere erakutsi. Diskoa amaituta entregatu diegu beti. Eta diskoetxe txikietan ere berdin jokatzen dugu. Uste dut errespetu kontua dela.

Pirateriak hondoratu du musikaren industria?

Arazo handienetakoa izango da, bai, baina artista eta industria ez dira gauza bera. Guk industrien beharra daukagu jendearengana hurbiltzeko eta egiten dugun produktua saltzeko. Egin dezakezu, bestela, zeure etxean maketa grabatu eta Internet bidez saldu. Musikan ere, ontzioletan gertatzen den gauza bera gertatzen da: eraberritu egin behar dela.

Pirateriaz gain, ordea, beste ardura batzuk ere baditu musika industriak: musika ez da kultura bezala onartzen, telebistek ere ez dute musikaren aldeko apusturik egiten eta beste hainbat gauza. Bestetik, onartu behar da diskoak saltzeko sortu diren multinazional berak sartu direla diskoak kopiatzeko merkatuan.

Diskoek arrazoizko prezio bat izan behar dutela defendatzen duzu.

Produktuaren kostua bat da eta horren propaganda beste bat, eta hortxe egiten dute gora prezioek. Hala ere, merkeagoak izan daitezkeela uste dut; guk, adibidez, prezio merkeagoak jartzen ditugu. Baina merkatu librean gaude eta ezin diozu denda bati inposatu salmenta prezioa, eta hori ez da justua. Guk gutxiago jasotzen dugu, baita konpainiak ere, baina ezin dugu dendarena kontrolatu.

Bete-betean bizi izan zenuen 80ko hamarkada. Zer gogoratzen duzu?

Gogoratu, gogoratzen dut, nire bizitzaren parte direlako, baina nik bizi izan ditudan urteak ez zaizkit batere axola; niri 50eko hamarkada interesatzen zait, ez 70, 80 edo 90ekoa. Orain, gainera, historia ikasten ari naiz, beraz, bizi ez ditudan garaiak askoz gehiago interesatzen zaizkit.

Ibiltzen zara oraindik Tetrisean?

Bai, horixe! Ohearen ondoan dudan Nintendo txikian sartuta dudan jolas bakarra da.

Pilak bukatzen zaizkionean, ez dizkiot jartzen hilabete batzuk pasa arte. Eta berriro jartzean, orduak eta orduak pasatzen ditut jolasten. Lo egiteko begiak ixten ditudanean ere, laukiak nola jaisten diren ikusten dut.

***Mac*-aren ia modelo guztiak ezagutzen dituzula irakurri dut.**

Buruhandia deitzen zioten modeloa eduki genuen lehenengo. Harrezkero, makina bat izan ditugu eta aspaldi ez dugu hura piztu, baina denak gordetzen ditugu, baita haurrendako egin zuten eskuko ordenagailu bat ere.

Dena den, lanaz aparte, informazioa bilatzeko soilik erabiltzen dut ordenagailua, ez naiz txateatzeko sareratzen.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko urriaren 29a

Joxe Arriaran: “Pilotan jokatzen ikasteko, gaur egungo pilotalekuak onegiak dira”

Makalena elkartearen 25. urteurrena ospatzeko pilotaren gaineko mahai-ingurua egin zuten eguaztenean Oñatin



XABIER URZELAI

Aitor Elkorok, Joxe Arriaranek, Iñaki Gorostitzak eta Koldo Aldalurrek hartu zuten esku pilotaren gaineko mahai-inguruan.

XABIER URZELAI

Lehengo, gaur egungo eta etorkizuneko pilotaren gainean egin zuten berba eguazten ilunkeran Oñatin, Santa Ana aretoan. Abel Barriolak eta Oinatz Bengoetxeak ezin izan zuten berbaldira joan, baina Joxe Arriaran arduratu zen mahai-ingurua entretenigarria izan zedin behar beste gatz eta piper botatzen.

Aitor Elkoro pilotari elgetarrak eta bi pilotari ohik, Iñaki Gorostitzak eta Joxe Arriaranek, azaldu zuten pilotaren mundua zenbat aldatu den. Joxe Arriaran birritan izan da buruz buruko txapeldun eta beste behin binakako txapela eskuratu zuen anaia Pakorekin batera. Joxe arduratu zen aspaldiko garaiko pilotaren gainean berba egiteaz, Aitor Elkorok gaur egungo pilotaren berri du, eta Iñaki Gorostitzak zubi lanak egin zituen, bizkaitarra 1977an izan zen-eta buruz buruko txapeldun. Gainera, berbaldian moderatzaile lanak egiten pilota barru-barrutik ezagutzen duen Koldo Aldalur izan zen, ETBko kirol kazetaria.

LEHENGO PILOTARIAK ETA ORAINGOAK

Joxe Arriaran ezagutzen duenak badaki arrasatearra ez dela isilik egoten den horietakoa, eta gustuko duela ondokoa zirikatzea. Berbaldia hasi eta berehala oraingo eta lehengo pilotarien gainean hasi ziren berbetan. Joxek bere garaiko pilotariak defendatu zituen, eta Elkorori egokitu zitzaion esaldi salomonikoa botatzea: “Lehen pilotari ona zenak orain ere ondo jokatuko luke, eta orain dauden puntapuntako pilotariak ere ondo moldatuko ziren lehen”. Iñaki Gorostitzak gaineratu zuen bere ustez maila oneko pilotari gehiago zeudela lehen: “Lehen, maila oneko 20 pilotari bazeuden, gaur egun 12 daude benetan onak”. Horrekin batera, Koldo Aldalurrek argi-

Kirola ere euskaraz egiten da

Spinning ikastaroak jarraipena izango du, eta patinajean ezustekoak izan dituzte

Lau ikastaro antolatu ditu Debarroko Kirol Zerbitzuak, Kirola Euskaraz egitarauaren barruan. Pultsometroaren erabilera eta sorosle izateko ikastaroa dira horietako bi. Beste biak, spinningeko irakasle izateko ikastaroa eta patinajekoa.

SPINNINGA HEDATZEN DOA

“Duela urte batzuk aerobikarekin gertatu bezala ari da gertatzen orain spinningarekin”, dio Gerardo Eskartzak, Oñatiko Kirol teknikariak. “Urtetik urtera gero eta jende gehiagok ematen du izena, izugarrizko arrakasta du kirol honek”, gaineratu du.

Eskaerari kasu eginez, spinningeko irakasle izateko ikastaroak antolatu dituzte azken urteetan Oñatin. “Spinningean jendea prestatzeko ikastaroak dira eta hiru mailatan banatzen dira”, azaldu du. Joan den zapatuan, bigarren mailako ikastaroa egin zuten ibarreko 18 lagunek. “Abenduan, ziurrenik, hirugarren mailakoa prestatuko dugu, hori ere euskaraz, horixe da-eta helburua, kirola ere euskaraz egitea”, dio Gerardok.



60 URTEKOAK PATINAJEA EGITEN

Joxean Iñarrak urte asko daramatza patinaje ikastaroak ematen, eta aurten zeharo harrituta gelditu da. “60 urte dituztenek ere eman dute izena aurten. Normalean umeak eta gazteak etortzen dira, baina erretiroa hartu dutenak ere etorri dira aurten, sekulako gogoarekin, gainera”, dio. Bergaran ematen du patinaje ikastaroa Joxeanek, zapatu goizetan. “Batzuetan lurrera erortzen dira ikasleak, baina sekulako barreak egiten ditugu eta ondo baino hobeto pasatzen dugu, hori ere euskaraz, noski”, gaineratu du Joxean Iñarrak.

PULTSOMETROAREN ERABILERA ETA SOROSLE IKASTAROA

Azaroaren 26an eta abenduaren 3an pultsometroaren erabilera ikasteko tailer praktikoa egingo dute Eibarko Ipurua kiroldegian. Debarroko edonor joan daiteke, eta parte-hartzaile kopurua mugatua da.

Uretako soroslea izateko lehen laguntzen ikastaroa, berriz, Elgoibarko Olaizaga kiroldegian erakutsiko dute datorren urtarriletik aurrera. Hemen ere edonork har dezake parte.

Ikastaro batean zein bestean, prezio murriztuak daude Debarroko kirol zerbitzuetako bazkideendako.

KIROLA EUSKARAZ

Kirola Euskaraz egitaraua urtero-urtero antolatzen dute Debarroko bi mankomunitatek, eta bertako edozein bizilagunendako ikastaroak antolatzen dituzte, euskaraz. Horixe dute helburu, kirola ere euskaraz egitea.

KIROL ZERBITZUEN BERRIAK JASOTZEKO:

Antzuola	943 76 62 46
Aretxabaleta	943 71 26 28
Arrasate	943 77 16 77
Bergara	943 77 91 67
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
kirol zerbitzua



AITOR ELKORO

ASPEKO PILOTARIA

Komunikabideek erabat aldatu dute kirol hau. Orain, lehen baino azkarrago jokatzen da, eta agian, buruz buruko txapelketarako ez da horrenbeste entrenatu behar, tantoak azkar amaitzen dira-eta. Hori esaten diote Eugiri , izan ere, ikustekoa da gizon hori nola entrenatzen den.

tu zuen, azken urteei gainbegiratua eginez gero, Euskal Herrian oso pilotari gutxi daudela hirietan jaiotakoak, eta horrela erantzun zion Joxek: "Hirietan zelan egongo dira ba pilotariak! Horiek *señoritoak* dira-eta. Gure garaian ez zegoen besterik, lantegia edo frontoia".

EGUNGO PILOTARIEN PRESTAKUNTZA

Pilotarien prestakuntza izan zen Aldalurrek mahai gainean jarri zuen beste gai bat, eta Joxek hartu zuen hitza: "Oraingo pilotariak mimatuegi daude, guk masajea



JOXE ARRIARAN

PILOTARI OHIA

Gaur egungo gazteei ez zaie mugarik jarri behar. Egin dezatela pilotan gura duten beste, nekatu arte. Hori bai, pilota bigunekin jokatu behar dute, eta sakea eurak baino baxuagoa izan dadila, pilota dominatzen ikasteko. Pilota dominatzea da garrantzitsuena.

zer zenik ere ez genekien. Gaur egun entzuten dudanean 'Ondo prestatuta dator txapelketara'... Mekaguen! Gaizki prestatuta egoteko moduan!".

Esan gabe doa horrelako adierazpenekin Santa Anan elkartu ziren pilotazaleek –jende dezente elkartu zen– gura beste barre egin zutela. Elkorok arrazoia eman zion Arrasateko beteranoari, egun baliabide handiak daude-eta ondo entrenatzeko. Elkorok gaineratu zuen, baina, egungo entrenamenduetan faltan sumatzen duela frontoian gehiago ibiltzea, eta Joxek berehala hartu zuen mikrofonoa: "Orain, pilotariek indar handiarekin ematen diote, baina ez dute pilota maneiatzen, eta maltzurkeria falta zaie. Gainera, pilotan ikasteko oraingo pilotalekuak onegiak dira. Lehen, frontoiek zulogune mordoa zituzten, eta botearekin argi ibili behar izaten genuen. Horrela ikasten da pilotan egiten". Eta Iñaki Gorostitzak bat egin zuen Joxerekin: "Egia da pilotari gazteak indar handiarekin datozela, baina teknikoki ez daude landuta".



IÑAKI GOROSTITZA

PILOTARI OHIA

Enpresaburuarendako 21-21eko berdinketa emaitza oso ona da, apustu gehiago egongo dira-eta. Horregatik, euren asmoa izaten da bikoteak parekatuak izatea. Horrela ez bada, ahalegintzen dira bikote makalenari abantailatxoa ematen, materialarekin, adibidez. Baina, ezusteak ere izaten dira.

Kirolabur

ERRUGBIA/ARRASATEK, KONTRARIO GOGORRA

Euskadiko Mailan itxura polita erakutsita, baina oraindik ere partidurik irabazi barik dago Arrasateko taldea. Zapatuan (16:00etan, Donostian) David Jauregiren mutilek txapelketako taldeko gogorrenetako baten kontra jokatuko dute, Atletico San Sebastian taldearen kontra, hain zuzen. Donostiarrak hirugarren dira sailkapenean; Arrasateko taldea, berriz, azkenaurreko postuan dago, Zarautzen aurretik. Eta hori da arrasatearren aurtengo helburuetako bat: Zarautz, behintzat, atzean uztea.

SASKIBALOIA/MUGARRI ALKESA, LARRI

Arrasateko saskibaloi taldeak, Mugarri Alkesak, gogotik egin beharko du lan zapatuan (18:00etan, Iturripen) Lizarrako Legarzia Promociones taldearen kontra. Gorka Zurututzaren mutilen helburua da denboraldiko bigarren partidua irabaztea, baina inoiz baino zailtasun handiagoak izango dituzte horretarako, jokalari asko daudeeta min hartuta. Dagoeneko ziurra da Laspiurrek, Alarciak eta Iñigo Biainek ezin izango dutela jokatu. Eta ikusi egin beharko da Isasa eta Jagoba Gamarra jokatzeko moduan dauden, bi jokalari horiek orkatila daukate-eta minduta. Bestela, zapatuko kontrarioa ez da lehenengo mailako talde sendoena.

ESKUBALOIA/ARRIKRUTZEK ETXEAN JOKATUKO DU

Trapagan galdu eta gero (21-17), Arrikrutz Oñatiko Kobak taldeak etxean jokatuko du zapatuan (18:00etan, Zubikoan). Oñatiarrek Urdaneta taldearen bisita izango dute, eta ahaleginduko dira orain arte etxean erakutsi duten mailari eusten.

Bestalde, Euskadiko Txapelketan, Bergarak Basaurira joan beharko du zapatuan Luk Internacional taldearen kontra indarrak neurtzera (18:15ean, Urbi kiroldegian). Bizkaitarrak sailkapenaren erdierdian daude, eta bergararrak azkeneko postutik irten guran dabiltza. Azkenik, Lehen Territorial Mailan, AGR Arrasatek Hondarribiren kontra jokatuko du domekan (11:00etan, Iturripen).

FUTBOLA/PREFERENTEKO TALDEAK

Ibarreko preferenteko taldeen artean, Aloña Mendi da etxean jokatuko duen ordezkari bakarra. Oñatiko taldeak Beti Gazteren bisita izango du domekan (15:45ean, Azkoagainen). Laugarren postuan dagoen Aretxabaletak Touring-en zelaian jokatuko du zapatuan (17:00etan, Fanderian). Mondrak Zestoan jokatuko du zapatuan (16:00etan, Zubiaurren). Eta EHUko talde gaztearen kontra ahaleginduko da Bergara azkeneko postua atzean uzten. Norgehiagoka hori ere zapatuan jokatuko dute (16:00etan, Zubietan).

XAKEA/ARRASATE HIRIA TXAPELKETA

Gaur, egubakoitza, arratsaldean jokatuko dute Arrasate Hiria Xake Txapelketako azken jardunaldia. 19:00etan hasiko dira xake partidak, eta emozio handia izango da Arrasateko taldeak Altamiran duen lokalean, oraindik ez dago-eta argi nork irabaziko duen.

Rodney Perez kubatarra da aukera gehien duena (4,5 puntu). Javier Gastañaresi irabazten badio, kubatarra sailkatuko da lehena, eta berdinketa eginez gero ere aukera handiak ditu irabazteko. Gastañares, baina, kontrario gogorra da, kubatarrak baino puntu erdi gutxiago baino ez du-eta (4 puntu). Gastañaresek irabazteak ez du esan gura berarendako izango denik txapela, beste lau daude-eta 4 punturekin.

Añai erretegia

Nardeaga 32 / ARAMAIO
945 44 51 01

Eskaintza
- Bataio eta jaunartzeak
- Kintadak
- Karta

Berezitasunak
- Arraina eta okela parrillan
- Etxeko postreak

Egubakoitzetan, zapatuetan eta domeketan zabalik

Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58

Eskaintza
- Menua eta karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

Astelehenetan itxita

Gure Ametsa jatetxea

LEINTZ GATZAGA
943 71 49 52

Eskaintza
- Ezkontzak
- Jaunartzeak eta bataioak
- Hiru jangela
- Aparkaleku handia
- Umeendako jolaslekua

Astelehenetan itxita

Pildain jatetxea

Udala auzoa 14 / ARRASATE
943 79 11 65 / 943 77 18 40

Eskaintza
- Eguneko menua
- Lagun arteko afariak
- Bataio eta jaunartzeak
- Ogitartekoak eta kazuelatxoak

Berezitasunak
- Bildotsa labean erreta
- Babarrunak
- Arraina
- Etxean egindako ogia

Torrekua jatetxea

Ibargarai 37 / BERGARA
943 76 50 99

Eskaintza
- Eguneko menua
- Karta
- Kintadak
- Bataio eta jaunartzeak

Berezitasunak
- Batik bat arraina
- Itsaskia
- Txuletak

Unzueta jatetxea

Zabola auzoa / ARAMAIO
945 44 50 95

Eskaintza
- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

Berezitasunak
- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

Egunero zabalik

Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa 1 / OÑATI
943 78 35 45

Eskaintza
- Eguneko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

Berezitasunak
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

Igandeetan itxita

Zuhaizti jatetxea

Espoloia 6 / BERGARA
943 76 59 22

Eskaintza
- Eguneko menua, aste barruan
- Pizzak, konbinatuak eta karta egubakoitz eta zapatu gauetan

Berezitasunak
- Etxeko postreak

Goienka 2a

Egubakoitza / 2004ko urriaren 29a

Kultura eta aisialdia

Urriaren 29tik azaroaren 5era

Eetapa berri bat hasi du Garik, eta, berak dioen bezala, hutsetik hasi da, zerotik. Horregatik jarri dio izen hori disko berriari, bere hirugarren diskoari, *0-tik*.

Zoriontsu bizi da orain. Inguruko guztiek mimatzen ei dute, eta hori asko gustatzen zaio. Zoriontasun horrek mundua beste ikuspegi batetik ikusten laguntzen dio, eta orain *pasota* hutsa dela aitortzen du, gauza askori ez diela batere kasurik egiten.

41 urte ditu, baina zoriontasuna ez diote urteek bakarrik eman. Neurri handi batean, urtebete duen Mikele alabak du zoriontasun horren errua. Baita Perun egindako egonaldiak ere. Hego Amerikako lurralde hartan gaizki zegoen, bakarrik sentitzen zen, oso bakarrik, eta norbaiten besarkada behar zuen, norbaitek ukitzea nahi zuen, norbaitek musukatzea. Hango sentsazioak, hango hausnarketak eta hango bizipenak bildu ditu disko berrian, izenburua aspalditik zuen diskoan, *0-tik* diskoan.

0-tik **disko berriaren azala.**

LEHEN ALDIA

Lehen, emanaldietan bakarrik disfrutatzen ei zuen. Lan berri horretan, ordea, prozesu guztiaz disfrutatu du lehenbiziko aldiz. Industria eta azpiegiturak zenbat aldatu diren konturatu da, baina ondo ibili da lanean. /OIHANA ELORZA **/14**

Gari

ASKOREN USTEZ EUSKAL ROCKAREN 'FRONTMAN'-A IZAN DA GARI. DA GARI. ESTATUARI GERRA EMAN ONDOREN, ASTIRO ETA AMORRUZ DATOR BERRIRO HUTSETIK, ZEROTIK.

AZALA: IÑAKI ITURBE / JATORRIZKO ARGAZKIA: JOSEBA OLALDE

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko urriaren 29a

MUSIKA/ GARIK HIRUGARREN DISKOA KALERATU DU

GARI, MUSIKARIA

"Hertzainak taldeko Gari naiz oraindik askorendako, baina ez dut atzera begiratzen"

OIHANA ELORZA

Garitaonandia abizenetik datorkio Gari izena. Lagunek horrelaxe deitzen diote. Lanean dabilenean, ordea, Iñaki dela esaten du berak, horixe baita bataioan gurasoek jarri zioten izena, Iñaki Ibon. Baina etxekoek *ttiki* deitzen diote oraindik, etxeko txikiena da-eta. Legazpiko Zipper taldean hasi zen rocka egiten. Hamaika urte egin zituen Hertzainak taldearekin, eta orain bere hirugarren diskoa, *0-tik,* aurkezten dabil han eta hemen, pozik.

UBANE MADERA

Elkar argitaletxearekin kaleratu du Garik hirugarren diskoa, *0-tik*.

Zerotik hasteko, erretzeari uztea da askok euren buruari proposatzen dioten apustua. Zu zigarroa erretzen zabiltza disko berriaren azalean. Nondik hasi zara *0-tik*?

Aste honetan bertan esan dit Jon Benitok *hutsetik* esatea egokiagoa izango dela agian *zerotik* baino. Eta arrazoi duela uste dut. Hitza bera ere goxoagoa da.

Diskoaren izenburua aspalditik nuen, Perutik etorri nintzenetik. Beste etapa bat hasi nahi nuen.

Peruko sentimenduak jaso dituzu lan berrian?

Perun egon nintzen bitartean izan nituen tentazioak, sentimenduak eta hausnarketak batu ditut. Aita izatea ere oso garrantzitsua izan da niretako, eta horrek ere eragina izan du.

Eta hango musika gustatu zaizu?

Folklorea ez dut askorik maite, eta, beraz, hango musika ez zait gustatu. Bestetik, abesti asko maitasunezko istorioak dira, baina oso letra matxista dute, oso kantu gogorrak dira batzuk.

Hala ere, han, kantu batzuk konposatu nituen, gaztelaniaz gehienak. Bakarra egin nuen euskaraz, eta azkenean ez dut diskoan sartu. Oso gaizki pasa nuen han; bakarrik sentitzen nintzen, oso bakarrik, norbaiten besarkada behar nuen eta behar hori idatzi nuen kantuan.

Kolaboratzaile bikainak dituzu disko berrian.

Jon Benito ez nuen orain arte ezagutzen, baina bion artean harreman ona egin dugu, eta atsegin dut harekin hitz egitea. Kepa Murua bizilaguna dut eta Jon Maiarekin magia berezia dut aspalditik. Atxaga, berriz, Atxaga da, nire zaindaria.

Mikele alabari eskaini diozu diskoa. Baita RIP taldeko Karlos *Mahoma*-ri ere. Nola ezagutu zenuen?

RIP taldea bera Oñatin entzun nuen lehenengo aldiz zuzenean, kontzertu batean. *Mahoma*, ordea, aspalditik ezagutzen nuen. Moto-krosean aritzen zen eta askotan egin genuen topo moto lasterketetan. Oso ona zen motoaren gainean. Harreman handia izan nuen berarekin eta baita RIP taldearekin berarekin ere. *Portu*-ren omenaldian ere izan nintzen, Monterronen.

Solfeoa eta pianoa ikasi zenituen Legazpin.

Bai. Familian guztiok izan dugu loturaren bat edo beste musikarekin.

Lehen taldea ere Legazpin sortu zenuten.

Zipper taldea. Rocka jotzen genuen. Garai haietan, Benito Lertxundi, Urko eta aspaldiko abeslariak entzuten ziren. Guri, ordea, ez zitzaizkigun gustatzen eta rocka egiten genuen.

Orduko kontzertuez hitz egiten duzue lagunak afaltzeko elkartzen zaretenean?

Sarri joaten naiz Legazpira lagunekin elkartean afaltzera, baina bestelako gaiak dira gureak: motorrak, autoak, lasterketak eta pilotuak. Gaztetandik maite dugu motorra eta oraindik ere bizi egiten dugu zaletasun hori. Alex Criville eta Alberto Puig zirkuituan ezagutu genituen; Jaramako eta Calafateko lasterketetara joaten ginen.

Hertzainak taldeko Gari zara oraindik ere?

Publiko batendako bai. Horixe da euren erreferentzia, baina ni ezin naiz atzera begira egon. Hala ere, ez nau horrenbeste kezkatzen, horrelaxe da-eta.

Xabier Montoia ordezkatu zenuen Hertzainak taldean.

Hertzainak taldeko bateria jotzaileak, *Txanpi*-k, abeslari bat behar zutela esan zidan. Oñatin, Hertzainak taldeak eta Zipper taldeak jo genuen, elkarrekin, eta hantxe sartu nintzen Gasteizko taldean. Hamaika urte egin genituen baina ez galdetu zenbat disko atera genituen, ezta zenbat kontzertu eman genituen ere, ez dakit-eta.

Zenbat disko atera zenituzten ere ez?

80ko hamarkada topera bizi izan genuen, baina orain amnesia antzeko bat dut. Ez naiz oroko datu askotaz oroitzen.

Faltan sumatzen dituzu orduko urteak, taldea, kontzertuak?

Zertarako? Orain oso zoriontsu bizi naiz. Mimatua sentitzen naiz, eta asko atsegin dut hori.

"Perutik bueltan beste etapa bat hasi nuen, eta hango hausnarketak batu ditut diskoan"

"80ko hamarkada topera bizi izan genuen, baina orain amnesia antzekoa dut"

"Motorrak, autoak eta lasterketak dira Legazpiko lagunekin egiten ditudan afarietako gaiak"

Mikeleren aita motozalea

Gasteizen bizi da orain Gari, baina Bilbon egiten du lan. Gurasoek umekarroak saltzen dituzten denda bat dute, eta hantxe dihardu orain. Haurren segurtasunaz arduratzen da. Aita-amen autoetan haurren eserlekua nola jarri behar den erakusten dizu, eta berak muntatzen dizu eserlekua auto barruan behar den moduan. Hori bai, auto dotorea baduzu, erabili ahal dezakeen galdetuko dizu, akaso. Izan ere, motoak, autoak eta lasterketak izugarri gustatzen zaizkio. Duela aste batzuk, Porsche elegante bat joan ei zen dendara, haurrarendako eserlekua erostera. Gari eta anaia autoari begira gelditu ziren, eta azkenean, autoan buelta bat ematea eskatu zioten jabeari. Baietz erantzun zien hark, eta Gariren anaiak hartu zuen autoa, txandaka aritzen dira-eta.

Aita denetik bizitza beste era batera ikusten duela aitortu digu: "Bigundu egin nau aita izateak".

Bizikletan ez da lehen beste ibiltzen. Udan ibili zen azkenekoz, baina asko gustatzen zaio, burua beste gauza batzuetaz arduratzen delako; baita sukaldean aritzen denean ere. Istripu asko izan ditu motoarekin, eta egun ez du abiadura handian gidatzen. Autobusean joaten da Gasteiztik Bilbora, eta hantxe konposatu ditu azken diskoko kanta batzuk.

MUSIKA/ DEBAGOIENEKO I. MUSIKA LEHIAKETA

Lehiaketa hasiera bikaina

OSO MAILA ONEKO TALDEAK IKUSI ZIREN DANBAKA MUSIKA LEHIAKETAKO LEHENENGO KONTZERTUAN

POTEMKIN / OÑATI

Askoren iritziz, joan zen egubakoitzeko kontzertuko onenak izan ziren. Haiek ireki zuten Danbaka lehiaketa eta oso ondo aritu ziren, indartsu, energia handia erakutsiz eta soinu trinkoa eginez. Zuzeneko piztiak direla erakutsi zuten. Eszenaratze aldetik, sekulako ikuskizuna eginez.

AMONAL / OÑATI

Eskola zaharreko taldea: 1988an sortutako taldea da, lehiaketako beteranoena. Punk klasikoa egin zuten barikuan, eta ska doinuak ere entzun ziren. Emanaldia irregularra izan zen, baina bizitasun handiko uneak ere lortu zituzten, batez ere hasieran, eta bi oñatiar oholtza gainera abestera igo zirenean, unerik freskoena.



JIM TNT / ARRASATE

Gitarra eta harmonikarekin armatuta ausartu zen Jim TNT agertokira, eta han, hazi egin zen. Emanaldi ederra egin zuen, lasaia eta gustagarria: rock lasaia, klasikoa, betiko taldeen bertsio eta guzti. Lehenengo irten behar zuela uste dute askok, eta ez Potemkin eta Amonalen ostean. Ordenak kalte egin zion.

MATXURA / ELGETA-SORALUZE

Kontzertuko azkeneko taldea. Pop dotorea egin zuten, rock ukitu batzuekin, eta hauek ere hazi egin ziren, bikain amaitu zuten. Hauei ere ordenak ez zien mesederik egin. Edozelan ere, kontzertu ona egin zuten, eta baten baino gehiagoren iritziz, ustekabe atsegina izan zen.

Ikuslearen Saria

Jendeak aukeratuko du Ikuslearen saria. Hemen, orain arteko sailkapena. Bidali mezuak:
danbaka [laga tartea] taldearen izena eta bidali 7744 zenbakira.
SMSaren kostua 0,90 euro+BEZ

1	**ENBOSKADA**	ARRASATE Botoen %29
2	**P0TEMKIN**	OÑATI Botoen %16
3	**OZEN**	ARRASATE Botoen %14,5
4	**STUKAS**	BERGARA Botoen %13,5
5	**JIM TNT**	ARRASATE Botoen %10,5
6	**DENIAL**	ARRASATE-ARETXABALETA Botoen %3,5
7	**ISAREVOLUTION**	ARRASATE Botoen %3
8	**LOS CRETINOS**	ARRASATE Botoen %2,5
9	**SHARON STONER**	OÑATI Botoen %2
10	**AMONAL**	OÑATI Botoen %2
11	**MATXURA**	ELGETA-SORALUZE Botoen %1,5
12	**OSTIADA OI!**	ELGETA-BERGARA Botoen %1
13	**MUTED**	ARRASATE Botoen %0
14	**NEURE BAITAN**	ARRASATE Botoen %0
15	**IZAS**	ELGETA Botoen %0
16	**N-OPH**	ARRASATE Botoen %0
17	**MALENKONIA**	OÑATI Botoen %0
18	**SUPERCOOLS**	BERGARA Botoen %0
19	**TURBOAMOR**	ARRASATE Botoen %0
20	**DIXIE 900**	BERGARA Botoen %0

DANBAKA
DEBAGOIENEKO I.MUSIKA LEHIAKETA

ASTELEHENEKO GOIENKARIan!

Danbaka-ko kontzertuen gaineko **informazio guztia** ASTELEHENEKO GOIENKARIAn:
kronikak, kritikak, iritziak, inkestak, taldeen inpresioak, argazkiak... Eta baita ikuslearen sariaren gaineko sailkapen eguneratua.
Hori guztia eta gehiago... ASTELEHENEKO GOIENKARIAn.
Erosi ASTELEHENEKO GOIENKARIA edo egin zaitez harpidedun!

gazte kutxa | Goienkaria | espalola | Elgetako Udala | Arrasate Irratia | Goitb | Goiena.net | Goienkaria | Memesa | Ganesha Tattoo & Piercing | jakina | Carrión música | Mondragon Unibertsitatea | Irudi Sport

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko urriaren 29a

Urr. 29-Aza. 5

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

MATRIKULAK

BERGARA

► **Nagusiendako heziketa iraunkor ikasketak** antolatu dituzte UNEDek eta San Joxepe elkarteak. Hiru ziklo izango dira. Literatura, psikologia eta bioenergia landuko dituzte, besteak beste. Azaroaren 2an hasiko da eta izenematea zabalik dago UNEDen bulegoan (Seminarioan). 90 euro da.

► **Urrutiko hizkuntza eskolarako matrikula** zabalik dago UNEDen. Euskara, ingeles, frantses eta aleman ikasketak dira. Horietarako izenemate epea azaroaren 18an bukatuko da. Argibideak, UNEDen (Bergarako Seminarioan).

ERAKUSKETAK

BERGARA

► **XIV. Kirol Argazkien Lehiaketako** lanak ikusteko modua duzue azaroaren 1era bitartean, kultura etxean, astegunetan 18:00-21:00 eta zapatu eta jai egunetan 12:00-14:00. Udal Kirol Sailak eta Pol-Pol Argazki Taldeak antolatu dute.

► **Gehitu** argazki erakusketa ipiniko du Gay eta Lesbianen Elkarteak azaroaren 3tik 14ra bitartean, kultura etxean, astelehenetik egubakoitzera 18:00-21:00 eta zapatu eta jai egunetan 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

► **Amnistia Internazionalaren** 25. urteurrena dela eta, euren ibilbideko kartelen erakusketa dago Masterreka kaleko Nahikari tabernan, azaroaren 19ra bitartean.

GASTEIZ

► **Luis Laskurain bergararraren** olio-lanen erakusketa dago Iradier 9 aretoan azaroaren 2ra bitartean. Ordutegia da 11:00-13:30 eta 17:00-20:00; domekan itxita dago.

LEHIAKETAK

ARRASATE

► **Argazki lehiaketa** deitu dute Txatxilipurdiko Gazte Txokoek, 10. urtemuga dutela-eta. Musikaren gaineko argazkiak eskatzen dituzte. 12-17 urte bitartekoek parte hartu ahal izango dute, bakoitzak lan bakarrarekin. Argazkiak aurkezteko epea da azaroaren 19a.

DEBAGOIENA

► **II. Eskultura Anizkoitz lehiaketa** deitu du Eibarko Alfa-Arte enpresak. Inoiz jendaurrean erakutsiko edo lehiaketatan aurkeztutako lan bat edo bi aurkeztu daitezke. Gehieneko neurria da 35 zentimetro, edozein aldetik. Sari nagusia da 9.000 euro. Lanak aurkezteko mugaeguna da azaroaren 30a. Argibideetarako, deitu 943 20 31 32 telefonora edo idatzi *alfaarte@alfa-lan.es* helbidera.

DEIAK

ANTZUOLA

► **Aiherra-Antzuola Lasterkaldia** iritsiko da Antzuolara bihar, zapatua, 11:00etan. 14:00etan bazkaria izango da pilotalekuan, eta 19:00etan, gaztaina erre jana.

ARRASATE

► **Berrikuntzari buruzko II. Jardunaldia** izango da Ikerlanen azaroaren 10ean. *Berrikuntza plana: zaintza, sormena eta 'roadmapping'-a* izenburua du. 09:00etatik 17:35era izango da jardunaldia, eta Euskal Herriko eta kanpoko adituek parte hartuko dute. Izenematea zabalik dago 943 71 24 00 telefonoan (Mª Eugenia Iñurrieta). Ikerlaneko bazkideendako, 150 euro da; gainerakoendako, 200.

► **Arabara txangoa** egingo du Ekin Emakumeak elkarteak azaroaren 20an. La Hoya, Errioxako soto bat ere bisitatuko dute. Izenematea zabalik dago 651 70 79 36 telefonoan azaroaren 5era bitartean.

► ***La criminalización de la protesta social en Argentina*** hitzaldia egingo dute Argentinako irakasle batzuek eguenean, hilak 4, gaztetxean, 19:00etan.

BERGARA

► ***Bergara en el entramado ferroviario vasco*** hitzaldia egingo du Carlos Larrinaga Rodriguez irakasleak martitzenean, azaroak 2, Miguel Altuna institutuan, 19:30ean, *Bergara, historia topagunea* zikloaren barne.

► **40an jaiotakoek** ospakizuna izango dute azaroaren 6an, zapatua, Pertxa elkartean. Joatekoak diren baina ezin izango duten lagunek honako telefonoan abisatu beharko dute: 943 76 31 92 (Carolina).

► **55ean jaiotakoek** batera afaltzeko aukera dute azaroaren 6an Azpeitxi jatetxean. Izena emateko, Kutxan zabaldu duten kontu korrontean 40 euro sartu behar dira.

► **Bergarako Orfeoiak** batzar orokorra egingo du gaur, egubakoitza, euren egoitzan. Lehenengo deialdia da 20:15erako, eta bigarrena, 20:30erako. Barne araudia eta estatutuak eztabaidatuko dituzte. Horregatik, ahalik eta bazkide gehienak joatea eskatzen dute.

DEBAGOIENA

► **Bilbora, gaztetxeen aldeko agerraldira joateko** eskualde autobusa antolatu dute gaztetxeek gaurko, egubakoitza. 18:30ean Bergarako geltokitik irtengo da; 19:00etan, Arrasatekotik. Bilboko Sorgintxulo gaztetxea ixten badute, herri bakoitzeko plazan kale-bilkura egingo dute egun horretan, 20:00etan.

► **Agifes buruko gaixotasunen inguruko elkarteak** hainbat ekintza antolatzen ditu Bergaran: senideen lantaldea bi martitzenean behin, Santa Anan, 10:00-11:00, eta Irizar jauregian, 19:00-20:00; familiei harrera hileko azken eguaztenetan, Irizar jauregian, Agifesko gizarte langile baten eskutik; eta senide boluntarioen lantaldea, astelehenetan, Irizar jauregian, 18:00-20:00. Informazio gehiagorako, deitu 943 76 98 56 telefono zenbakira.

► KONTZERTUAK

ALEMANIAKO I VOCALISTI TALDEAREN GANBARA MUSIKA SAIOA

Oñatiko Ganbara Abesbatzak antolatutako ganbara musika zikloa bihar bukatuko da, eta Alemaniako I Vocalisti taldea gonbidatu dute horretarako. Talde horrek ospe handia du bere arloan; horko 30 kideak esperientzia handikoak eta ahots heziketa sendokoak dira. Helburu nagusia dute, Bach, Schültz edo Mendelssohn konposatzaile handien musikaz gain, eliza musika gorengo mailan jokatzea. Gaur egungo lanak ere eskaintzen dituzte. 1991.ean eratu zen I Vocalisti taldea, eta geroztik hainbat nazioarteko bira egin dituzte eta izen handiko lehiaketatan sariak irabazi dituzte: besteak beste, VI. Alemaniako Abesbatza Sariketa irabazi zuten, eta txapeldunorde izan ziren VIII. Nazioarteko Ganbara Abesbatzen Sariketan.

Non: Oñatiko Santa Ana antzokian. **Noiz:** bihar, urriak 30, zapatua. **Ordua:** 19:30ean. **Sarrera:** 8 euro.

ESKORIATZA

► **Agenda 21 programa** aurkeztuko dute eguenean, azaroak 4, Udal Osoko Bilkura Aretoan, 17:00etan. Eskoriatzako Alkatea, Arizmendi eta Luis Ezeiza ikastetxeetako zuzendariak eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuburuak parte hartuko dute.

ANTZERKIA

ANTZUOLA

► ***Hitzak patriketan*** 3-9 urte bitartekoendako antzezlana eskainiko dute Iñaki Beraetxek eta Aizpea Goenagak etzi, domeka, Olaran etxean, 18:00etan.

ARRASATE

► ***Jim altxorraren uhartean*** txotxongilo emanaldia egingo du Gorakada taldeak bihar, zapatua, Amaia Udal Antzokian, 17:00etan.

ELGETA

► ***7 gezurtxiki*** antzerki eta musika emanaldia egingo dute Ramon Agirrek eta Joserra Senperenak gaur, egubakoitza, Espaloia kafe antzokian, 22:30ean. Kultur Errota egitasmoaren barne dago emanaldi hori.

► **Kale-antzerki emanaldia** izango dira bihar, zapatua, 19:00etan. *El pisito* lana antzeztuko dute. Horrez gain, etzi, domeka, txaranga ibiliko da herriko kaleetan.

ESKORIATZA

► **Kike Viguri** aktorearen umorezko bakarrizketa egongo da gaur, egubakoitza, unibertsitatean, 22:00etan.

IKASTAROAK

ARETXABALETA

► **Barreterapia ikastaroa** antolatu du Loramendi euskara elkarteak azaroaren 12tik 19ra bitartean. Loramendiko bazkideendako eta langabeendako, 20 euro da; gainerakoendako, 25.

ARRASATE

► **Sukaldaritza eta joskintza tailerrak** antolatu ditu Ekin Emakumeak elkarteak, biak ere hastapen mailan. Sukaldaritza tailerra azaroaren 8an hasiko da, 19:00-21:00; joskintzakoa, azaroaren 29an, 18:00-20:00. Izena emateko, deitu 651 70 79 36 telefonora azaroaren 3a, eguaztena, baino lehen.

► **Emakumeendako autobabes ikastaroa** antolatu du Emakume Txokoak azaroaren 5erako eta 6rako, eta izenematea hilaren 3an, eguaztenean, itxiko dute. 3 euro da. Matrikulatzeko, jo euren egoitzara, Uarkapen, edo deitu 943 79 41 39 zenbakira. Bestalde, zabalik dago baita jolas eta jostailu ez sexisten tailerrerako izenematea, hori azaroaren 9a arte.

► **Grafologia ikastarorako** izenemate epeak zabalik jarraitzen du. Azaroaren 4tik 25era bitartean izango da, IMIko lokaletan. Eguenetara aldatu dute ikastaroa. Izena emateko, jo gazte bulegora (943 77 00 65).

BERGARA

► **Elikadura arazoen gaineko** doako ikastaroa antolatu du Udalak azaroaren 6rako, zapatua, kultura etxean, 10:30-12:30 ordutegian. Elikadura arazoak zer diren, zerk eragiten dituen, zelan prebenitu… gai horiek eta gehiago landuko dituzte. Izena emateko, deitu 943 77 91 24 telefono zenbakira.

ESKORIATZA

► **Euskarazko jolasen gaineko** bi ikastaro deitu dituzte Udalak eta Urtxintxa Aisialdi Eskolak: guraso eta 4-10 urte bitarteko umeendako euskal jolas ikastaroa; eta 0-5 urtekoen jolas eta abestiak (helduendako), eta izenematea zabalik dago azaroaren 5era bitartean. Horretarako, joan kultura etxera edo deitu 943 71 46 88 telefonora. Leku kopuru mugatua dago.

MUSIKA

BERGARA

► **The Scientists eta The Drones** taldeen kontzertua izango da gaur, egubakoitza, Jam aretoan, 22:00etan. 15 euro da, 13 aldez aurreko salmentan.

► **Kalekumeak, Enboskada eta Ardi Galduak** taldeen kontzertua izango da bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

OSPAKIZUNAK

ARRASATE

► **Halloween jaialdia** izango da etzi gauean, domeka, Gure Leku tabernan.

BERGARA

► **Halloween festa** izango da etzi, domeka, Jam aretoan, 22:00etan. Fangoria, La Mexikan Acid Queen, Arrakis DJ, Nancy Rubias, Jet 7, Cha Cha Cha DJ San Gregorio eta beste hainbat disko jartzailek parte hartuko dute. 15 euro da. Mozorro lehiaketa ere egongo da: 600 euro irabaziko ditu mozorro onenak.

Zinema

ARAMAIO

■ **KULTURA ETXEA**

Cold mountain
Egubakoitza: 22:30.

Troya
Domeka: 22:30.

ARRASATE

■ **AMAIA ANTZOKIA**

Kill Bill 2
Egubakoitza: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Zafarrancho en el rancho
Domeka: 17:00.
Astelehena: 17:00.

Astelehena, ikuslearen eguna.

BERGARA

■ **NOVEDADES**

Horas de luz
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30, 22:15.

Hellboy
Zapatua: 17:00, 19:30.
Domeka: 17:00.
Astelehena: 17:00.
Martitzena: 19:30.

El señor Ibrahim y las flores del Corán
Eguena, zinekluba: 20:00.

Martitzena, ikuslearen eguna.

ELGETA

■ **ESPALOIA**

Yo soy Sam
Eguaztena: 21:30.

OÑATI

■ **KULTURA ETXEA**

Hellboy
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30, 22:30.

Garfield
Domeka: 17:00.
Astelehena: 17:00.

Baran (Lluvia)
Eguena, zinekluba: 20:00.

Astelehena, ikuslearen eguna.

EIBAR

■ **UNZAGA**

El fuego de la venganza
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **RIALTO**

Crimen ferpecto
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ikuslearen eguna.

GASTEIZ

■ **GURIDI**

Mar adentro
20:00, 22:30.

Brigada 49
17:30.

Crimen ferpecto
17:30, 20:00, 22:30.

Collateral
17:30, 20:00, 22:30.

El espantatiburones
16:30, 18:30.

El exorcista: el comienzo
17:30, 20:00, 22:30.

Zombie's party
18:30.

El diario de Noa
17:30, 20:00, 22:30.

Más falsas apariencias
16:30, 20:30, 22:30.

Primavera, verano, otoño, invierno… y primavera
20:30, 22:30.

■ **MIKELDI ZINEMAK**

Mar adentro
17:30, 20:15, 22:45.

Azti ikaslea
17:15.

El espantatiburones
17:30, 20:15.

Misteriosa obsesión
17:30, 20:15, 22:45.

El bosque
20:00, 22:30.

El mito de Bourne
17:20, 19:50, 22:35.

Diarios de motocicleta
17:15, 20:00, 22:30.

La terminal
22:45.

Collateral
17:30, 20:15, 22:45.

Dos rubias de pelo en pecho
17:15, 20:00, 22:30.

El chocolate del loro
17:15, 20:00, 22:30.

Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

Melinda y Melinda
17:30, 20:00, 22:30.

Caminos cruzados
17:30, 20:00, 22:30.

María querida
17:30, 20:00, 22:30.

Testigos ocultos
17:30, 20:00, 22:30.

El polaquito
20:15.

Diarios de motocicleta
17:30, 20:00, 22:30.

Roma
17:30, 22:00.

María, llena eres de gracia
17:00, 20:45.

Antes del atardecer
19:00, 22:45.

■ **ÁBACO-LAKUA ZINEMAK**

Una mujer difícil
22:30, 01:00.

Pisando fuerte
22:30, 00:45.

El bosque
22:30, 01:00.

Escuela de seducción
00:45.

Misteriosa obsesión
16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

El fuego de la venganza
16:00, 19:00.

Más falsas apariencias
16:10, 18:10, 20:20, 22:45, 01:00.

Collateral
16:30, 19:10, 22:00, 01:00.

El espantatiburones
16:15, 18:20, 20:20.

Blizzard, el reino mágico
16:00, 18:10, 20:20.

Conociendo a Julia
16:10, 18:20, 20:20, 22:30, 00:45.

Ouija
16:00, 18:15.

Horas de luz
20:30, 22:45, 01:00.

El chocolate del loro
16:00, 18:10, 20:20, 20:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

Brigada 49
12:15, 17:15, 19:45, 22:15, 00:45.

Collateral
12:15, 17:30, 20:00, 22:30, 00:45.

Dos rubias de pelo en pecho
12:15, 16:05, 18:10, 20:25, 22:40, 00:50.

El exorcista: el comienzo
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Mar adentro
12:15, 17:10, 19:40, 22:10, 00:40.

Garfield
12:15, 16:30.

El espantatiburones
12:15, 16:25, 18:25, 20:25.

Misteriosa obsesión
12:15, 16:45, 18:45, 20:45, 22:45, 00:45.

Crimen ferpecto
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

El fuego de la venganza
12:15, 16:00, 18:45, 21:45, 00:45.

Pisando fuerte
18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

El diario de Noa
12:15, 16:30, 19:00, 21:30, 00:00.

Melinda y Melinda
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Más falsas apariencias
12:15, 16:00, 18:05, 20:10, 22:15, 00:20.

Ouija
22:25, 00:25.

Conociendo a Julia
12:15, 17:15, 19:30, 21:45, 00:15.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean, zapatuan eta astelehenean.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

■ **ÁBACO BOULEVARD**

Crimen ferpecto
12:10, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

El exorcista: el comienzo
12:10, 17:15, 20:00, 22:30, 01:00.

Mar adentro
12:00, 17:05, 19:40, 22:20, 01:00.

El espantatiburones
12:15, 16:10, 18:10, 20:10.

Melinda y Melinda
12:15, 16:00, 18:05, 20:20, 22:30, 00:45.

Misteriosa obsesión
12:10, 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 00:45.

Collateral
12:10, 17:00, 19:50, 22:25, 01:00.

El chocolate del loro
12:00, 16:05, 18:10, 20:15, 22:20, 00:45.

Dos rubias de pelo en pecho
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:05.

El fuego de la venganza
12:00, 16:20, 19:15, 22:10, 01:10.

Escuela de seducción
01:00.

Hipnos
22:05, 00:45.

El diario de Noa
12:15, 17:00, 19:40, 22:20.

Brigada 49
12:00, 17:15, 19:45, 22:30, 01:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean, zapatuan eta domekan.
Eguerdiko saioak, bakarrik domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

El bosque: ●●●● / ***Una mujer difícil:*** ●●● / ***Antes del atardecer:*** ●●● / ***Mar adentro:*** ●●● / ***Kill Bill 2:*** ●●● / ***La terminal:*** ●● /

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

KRITIKA

MELINDA Y MELINDA

PUNTUAZIOA: ●●●●

ZUZENDARIA: Woody Allen.
AKTOREAK: Radha Mitchell, Will Ferrell, Chlöe Sevigny.

Woody Allenek Donostiako Zinemaldian estreinatutako *Melinda y Melinda*-rekin bete-betean asmatu du. Bere azkeneko urteetako filmak, batzuk besteak baino hobeak, ez ziren heltzen bere maila onenera. Aurreko *Todo lo demás*-ekin eman zuen pauso bat aurrera eta, orain, urte askoan egin duen lanik ederrena eskaintzen digu.

Melinda y Melinda-rekin Allenek hain ondo ezagutzen dituen eta hain ondo deskribatzen dakien pertsonaietara eta New Yorkeko burgesiaren girora jotzen du, horien obsesio eta arazo sentimentalak argitasunez deskribatuz. Gizakien arteko harremanek eta portaerek bizitza kaos bihurtzen dutela esaten digu bere pertsonaia neurotiko eta dudatsuekin, erantzunik gabeko amodioekin eta sentipenen gorabeherekin. Sentipenek norabidez aldatzen dute eta pertsonaiek ez dakite aldaketa horien zergatia, ezta horiek nola kontrolatu ere.

Melinda y Melinda-k Allenek ohiko dituen gaiak eta obsesioak tratatzen ditu, zuzendariaren estilo klasikoa du, baina badu originala bihurtzen duten berritasunak ere: istorio bera bi ikuspuntutatik kontatzen da. Filmaren hasieran pertsonaia batzuk —horietako bi



idazleak dira— eztabaidatzen ari dira ea komedia edo drama hobea den bizitza zer den islatzeko. Hau dela-eta, idazleek hasierako puntu bera hartuz —*Melinda*, istorioaren pertsonaia nagusia, ustekabean, lagun bilera baten agertzen da— hainbat pertsonaiaren artean sortzen diren harremanak garatzeko aukera izango dute. Batek istorioari komedia tonua emango dio, besteak dramara joko du. Eta gu batetik bestera salto eginez arituko gara. Hau dela-eta, tonuak aldatuz joango dira, eta egoerei eta pertsonaiei etekina ateratzeko dauden modu desberdinak ikusiko ditugu. Maisutasun handia behar da tonu desberdineko bi istorioetan sortzen diren istorio txikiak kontatzeko eta denekin osotasun bat lortzeko, eta Allenek, gidoi eta aktore talde eder batekin (Rhanda Mitchellen lana zoragarria da), erronka ederki gainditzen du. Azkenean, bi eratako istorioak ikusiko ditugu, drama eta komedia. Zuek aukeratu nahiago duzuena, drama edo komedia, edo, zergatik ez, biak hartu.

ANTONIO ZABALA

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:
• Erdialdea 80 m². Eguzkitsua.
• Erdialdea 85 m². Berritzeko.
• Martoko 85 m². Eguzkitsua.
• Basarte 78 m². Berrituta.
• Zubiaurre 45m². Berrituta.
• San Pedro 150m². Ondo.
Antzuola:
• Hamaika etxebizitza eraikin berrian. Ondo kokatuta. Garajea aukeran.
• Erdialdea 88 m². Berria.
Soraluze:
• Erdialdea 57 m². Berrituta.
BASERRIAK SALGAI
• Elosun, Osintxun, Angiozarren, Soraluzen eta San Juanen.

DEBA GARAIA INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
Zarugalde 1 Arrasate
T: 943 77 13 02 F. 943 73 12 40
ETXEBIZITZAK SALGAI
BERGARA:
•Erdialdea 86 m². Etxe berria.
•Martoko 60 m². Berrituta.
•Erdialdea 90m². Oso ondo dago.
•Erdialdea 78 m². Berrituta.
•San Anton 67 m². Berrituta.
•Zubieta 70 m². Eguzkitsua.
•Erdialdea 75 m². Ganbara.
ANTZUOLA:
•11 etxebizitza berri.
•Beheko auzoa 60 m². Berrituta.
ELGETA:
•120 m². Duplexa. Berria.
BASERRIAK
•Angiozar 600 m² eta lursaila.
•Elosua 405 m² eta lursaila.
•Elosua 246 m². Egoera onean.

Iragarki sailkatuak

1. ETXEBIZITZAK
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

2. GARAJEAK
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

3. LOKALAK
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

4. LANA
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

5. IRAKASKUNTZA
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

6. MOTORRA
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

7. ANIMALIAK
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

8. DENETARIK
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

9. HARREMANAK
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

10. RELAX

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 76 92 71
sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 15 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Bi logela, egongela, sukaldea, bainugela eta trastelekua. Berogailua eta gasa kanalizatuta ditu eta eguzkitsua da. Bizitzen hasteko moduan dago. 666 80 09 32.

Aramaio. Beheko solairua. Ortua eta erdisotoa ere baditu. Erdisotoan txokoa eta trastelekua egin daitezke. Deitu 18:00etatik 22:00etara, mesedez. 615 73 91 28.

Aretxabaleta. 77 metro koadroko etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Bi balkoi. Trastelekua. Berogailua. Berritua eta erdi jantzia. 943 77 19 39 edo 635 74 34 13.

Aretxabaleta. Erdialdean. 80m². Hiru logela eta egongela. Dena kanpora begira. Bizitzen hasteko moduan. Deitu 17:00etatik 21:00etara. 627 34 92 27.

Aretxabaleta. Erdialdean etxebizitza salgai. Deitu 20:00etatik aurrera. 943 79 30 63.

Arrasate. 78 metro koadroko etxebizitza salgai, igogailuarekin. Berogailua dauka, berrituta eta jantzita dago. 639 30 48 12.

Arrasate. Etxebizitza salgai Erguin kalean. 3. solairua. Hiru logela, egongela, komuna, bainugela, sukaldea eta balkoia. 210.000 euro. 606 86 71 97.

Arrasate. Etxebizitza salgai Santa Teresa kalean. Berritua. Gas naturala. 943 77 04 53.

Arrasate. Etxebizitza salgai. 78 metro koadro. Hiru logela, bi bainu, egongela eta trastelekua ditu. Berogailua eta igogailua. Guztiz berritua. 639 30 48 12.

Arrasate. San Andres auzoan. Bi logela, sukaldea, bainugela eta egongela. 605 76 00 27.

Arrasaten, Uribe auzoan. Guztiz berritua. Garajea, trastelekua eta ganbara ditu. 659 77 18 57.

Bergara. Baserria, Angiozarren. 1.086 m² eta zuhaitz eta fruta-arboletarako beste 23.000 m². Telefonoa: 626 35 60 89.

Bergara. Etxebizitza salgai. 605 73 37 39.

Sorazule. Etxebizitza salgai. 615 77 99 20.

102. EROSI

Debagoiena. Teilatupea erosiko nuke ibarreko edozein herritan. 650 12 58 48.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Erdialdean dagoen etxebizitza bat ematen da errentan. Hiru logela ditu, egongela, sukaldea eta komuna, dena kanpora begira. 679 25 72 46.

Arrasate. Etxebizitza errentan San Andres auzoan. 653 74 65 65.

Arrasate. Ikasleendako etxebizitza emango nuke errentan Erguinen. Bost logela eta bi bainugela ditu. Telefonoa: 635 73 27 74.

Bergara. Apartamentua erdialdean. 70 metro kuadro. Berritua. 605 71 37 77.

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Bi edo hiru hilabeterako. 669 94 67 69.

Bergara. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Igogailua izatea ezinbestekoa da. 943 76 57 85.

Bergara. Teilatupe bat nahi nuke errentan hartzeko. 686 93 40 10.

Bergaran, etxebizitza errentan hartuko nuke. Telefonoa: 650 48 17 51.

Debagoiena. Mutil gazte batek logela errentan hartuko luke Debagoieneko edozein herritan. 620 37 27 87.

105. ETXEAK OSATU

Gasteiz. Gorbeia kalean etxebizitza osatzeko neska behar da. Maite. Telefonoa: 665 72 20 85.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. Eguzki dorrean garaje itxia salgai. Telefonoa: 605 77 24 99.

Arrasate. Erguin auzoan, Jauregibarria kalean. 16 metro koadro. Deitu 21:30-22:00etatik aurrera. 605 73 47 68.

Donostia. Anoetatik gertu, Amarako Arko parean. 12 m². Prezio ona. Nekane. 605 74 26 60.

203. ERRENTAN EMAN

Antzuola. Garaje itxia, Buztinzuri kalean. 943 78 70 52.

Arrasate. Kontzezino kalean. 655 71 81 84.

Oñati. Auto bat sartzen den garajea ematen da errentan Bidebarrietan. Telefonoa: 639 00 21 72.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Antzuola. 113 metro koadro. Prezio ona. Telefonoa: 943 76 21 80.

303. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Lokal argitsua errentan ematen dut. 26 m². Kaletik sarrera. Estudio edo kontsultarako egokia. 943 79 25 77.

Bergara. Lokala errentan eman (250 euro hilean) edo salduko nuke. Ura eta argia ditu. 620 17 80 47.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Aretxabaleta. Sukaldeko lanak egiteko pertsona behar dut. Bi ordu egunean, astelehenetik domekara. 653 71 22 48.

Bergara. Etxeko lanak egiteko emakumea behar da. 676 22 33 18.

402. ESKAERAK

Aretxabaleta. Emakumea gertu etxeko lanak egiteko. 687 89 22 21.

Arrasate. Emakume euskalduna lanerako gertu. 659 82 75 18.

Arrasate. Emakumea gertu etxeko lanak egiteko eta arratsaldez umeak zaintzeko. Maite. 609 51 14 25.

Arrasate. Neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko, eta umeak edo edadetuak zaintzeko. Telefonoa: 676 19 87 65.

Arrasate. Neska euskaldunak umeak zainduko lituzke arratsaldeetan. 636 64 90 60 edo 943 77 05 84.

Arrasate. Neska gaztea orduka lan egiteko gertu (umeak zaintzen, adibidez). 646 15 21 20.

Arrasate. Neska gertu etxeko lanak egiteko eta adineko pertsonak zaintzeko, goizez. Deitu elefono honetara: 686 16 22 75.

Bergara. 35 urteko neska umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko gertu. 647 51 52 80.

Debagoiena. Emakume bat gertu etxeko lanak egiteko, zerbitzari lanak egiteko, umeak zaintzeko edo beste edozein lanetarako. Telefonoa: 943 79 98 56.

Debagoiena. Mutil gaztea prest edozein lanetarako. 600 87 63 95.

Debagoiena. Mutila gertu lan egiteko. Telefonoa: 620 37 27 87.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Arrasate. 9 urteko mutiko bati egunero etxeko lanak egiten laguntzeko irakaslea behar da. 676 86 18 00.

Informatika eskolak hartuko nituzke. 680 44 91 51.

Marrazketa teknikoko eskolak hartuko nituzke. 652 71 74 49.

502. EMAN

Arrasate. Behar bereziak dituzten umeei laguntza eskolak emango nizkieke. 645 73 04 69.

Arrasate. Informatikako eskola partikularrak ematen dira ingeniaritzako maila guztietan. Iñaki. 678 04 22 11.

Bergara. Esperientzia duen neskak eskola partikularrak emango lizkioke zailtasunak dituen ikasleari. Lehen Hezkuntzatik Batxilergora, ikasgai guztiak. 620 53 83 27.

Bergara. Zientzietan lizentziadunak eskola partikularrak ematen dizkie DBHko ikasleei. 626 71 97 71.

Ingeles eta errusiera eskolak. Maila guztiak. Deitu 12:00etatik 17:00etara edo gauez. 610 97 49 68.

Oñati. Kimikan lizentziadunak matematika, fisika eta kimika eskolak emango lituzke. (Iratxe). 943 78 19 59.

Garbi S.L.
PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.
943 33 18 37 (HERNANI)
649 84 67 09 (BERGARA)

BERGARA
PUB IRLANDARREAN BEHAR DIRA: ESPERIENTZIADUN ZERBITZARIAK ETA PINTXOAK EGITEN ESPERIENTZIA DUEN SUKALDARIA.
630 04 22 37

ARRASATE
ESPERIENTZIADUN ZERBITZARIA BEHAR DA ASTEGUNETAN LAN EGITEKO.
600 67 38 65

BERGARA
AVENIDA TABERNAN SUKALDARIA BEHAR DA. KONTRATUAREKIN.
656 78 12 04

ARRASATE
ILE APAINDEGIRAKO LAGUNTZAILEA BEHAR DA. EGUN ERDIKO JARDUNA. KONTRATUAREKIN.
656 22 33 18

DEBAGOIENA
ARRASATE INGURURAKO INGELESEKO IRAKASLEA BEHAR DA. BEREHALA LANEAN HASTEKO. BIDALI CURRICULUMAK: recursos@cim-idiomas.com

ARRASATE
LOKAL KOMERTZIALA SALGAI JOSE LUIS IÑARRA KALEAN. 98 M2, BI SOLAIRUTAN BANATUAK.
943 79 55 06

6/ MOTORRA

601. SALDU

Golf GTI autoa salgai. SS-AF. 652 77 71 08.

Opel Corsa 1.2 autoa salgai. 2.000 km. Urtebeteko bermea. 943 76 07 19 edo 665 74 47 64.

Opel Vectra autoa. 1990ekoa. ABS balaztak, aire girotua. 3.000 euro. 658 72 11 49.

Renault Clio 1.4 IS (80 ZP) autoa salgai. 1997koa, 102.000 km. Direkzio lagundua. Oso ondo dago. 3.500 euro. 645 72 25 95.

RF Suzuki scooter motorra salgai. 49 cm³. Telefonoa: 943 76 71 93.

Seat Cordoba autoa, berria (urtebete eta hiru hilabete). Ondo dago. 647 64 02 81 edo 605 73 71 90.

Toyota Avensis 2.0 Turbodiesel autoa salgai. SS-BG. 652 75 79 71.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Bi zaldi. Bata, luzitanoa, gaztaina-kolorekoa; bestea, arabiarra, zuri-beltza. 943 76 29 67.

703. EMAN

Artzain txakurkumeak oparitzen ditut. 943 76 05 40.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Bergara. Logela osoa salgai, bi ohe egoeran onean eta merke. Salarako sofa eta armairuarekin batera. 943 76 53 16.

Cosina objektiboa salgai. Canon kamerarako egokia, 100/400 mm. 150-180 euro bitartean. 636 66 34 06.

Gitarra anplifikadorea. 30 watt, berri-berria, 150 euro. 680 44 91 51.

Gurpil bi salgai, Mavic Cosmos markakoak. Errepideko bizikletendakoak. Ondo daude. 140 euro. 661 33 85 63.

Intxaurrak eta urrak salgai. Baserrikoak. Prezio ona. 658 99 24 12.

Ordenagailua. Petium III, 450 HZ, 128 Ram, Microsoft Windows XP. Berria. 300 euro. 637 83 18 45.

Sagarrak salgai. Antzuolakoak. 635 00 70 25.

SD 256 MB memoria tarjeta berriak salgai 40 eurotan! *compraventas 2000@yahoo.es.*

Tronboia salgai, Holton markakoa. 676 78 37 65.

802. EROSI

Bergara. Artzain txabola erosiko nuke. Eraitsita badago hobeto. 620 17 80 47.

Oñati. Olabarrieta auzoan 1500-2000 m²ko lursaila erosiko nuke, eraikitzeko baimenarekin. 605 77 43 25.

Rotabatorea eta antzinako motorra erosiko nituzke. Berdin da zelan dauden. 656 75 76 98.

806. GALDU

Oñati. Alkandora beltza galdu dut, emakumeendakoa. 637 74 71 61.

807. AURKITU

Bergarako azokan erloju bat topatu dut. Erlojua azokako arrandegian dago.

LAN POLTSA

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibak

LAN POLTSA OSATZEKO KAZETARIAK BEHAR DITU

Eskatzen da:

- Titulazioa izatea
- Euskaraz ondo jakitzea
- Gidabaimena edukitzea
- Interneteko ezagutza.

Interesatuok bidali curriculuma:

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
132 pk, 20500 ARRASATE
Edo: admi@goiena.com

Curriculumak aurkezteko azken eguna:

2004ko azaroaren 8a

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

Bergarako Udala

LAN POLTSA

Bergarako Udalak kanposanturako laguntzaileen lan poltsa osatu behar du lehiaketa-oposizio bidez.

Lehiakideen baldintzak
- Eskola ziurtagiria edo parekoa izatea.
- Euskara jakitea, bigarren hizkuntza eskakizunari dagokion maila, derrigorrezkoa.

Instantziak
Instantziak aurkezteko epea 2004ko azaroaren 5ean, 13:30ean bukatuko da.

Oinarriak udaletxeko idazkaritzako bulegoetan.

Bergaran, 2004ko urriaren 27an

Alkatea

Aretxabaletako Udala

LAN ESKAINTZA

Denboraldi baterako gazte teknikari baten kontratazioa

Eskaerak aurkezteko epea:
2004ko azaroaren 5eko arratsaldeko ordu bata arte.

Titulazioa:
Unibertsitateko diplomatura, lanbide hezkuntzako 3. maila edo baliokidea

Informazio zabalagoa:
943 71 18 62

Aretxabaletan,
2004ko urriaren 28an

AIPAGARRI

Maider Arriaran

ARRASATE

Moda diseinuan bidea zabaltzen ari da Maider Arriaran arrasatear gaztea. 22 urte ditu eta Diseinatzaile Gazteen Azokan hartu du parte. Hantxe saldu ditu, lehenengo aldiz, berak diseinatutako jantzi eta bitxiak. Datorren martxoan bere bosgarren desfilea egingo du Gasteizen.

Ritxar Fernandez

OÑATI

Euskal Herriko maratoi erdia irabazi zuen Ritxar Fernandez oñatiarrak joan den domekan. Donibane Lohizune eta Hondarribia arteko 21 kilometroak egiteko, ordu bat, 10 minutu eta 50 segundo behar izan zituen. Bi minutu atera zizkion bigarren heldu zen korrikalari marokoarrari.

Alberto Iñurrategi

ARETXABALETA

Kalitatea saria irabazi du mendizale aretxabaletarrak. Albertok Juanito Oiartzabalekin batera hartu du saria, euskal mendizaletasunaren izenean. Euskal Herriaren irudi ona kanpora ateratzen lagundu dutelako saritu ditu Kalitatea Fundazioak. Donostian egin zuten sari banaketa.

HILDAKOAK

Milagros Osoro Alberdi. Bergaran, urriaren 20an. 65 urte.
Felix Igartua Ugarte. Oñatin, urriaren 21ean. 90 urte.
Jabier Urtzelai Agirrebengoa. Oñatin, urriaren 23an. 75 urte.
Margarita Ruiz Gonzalez. Oñatin,urriaren 23an. 75 urte.
Divina Pastora Murua. Bergaran, urriaren 24an. 89 urte.
Jose Antonio Larrañaga Urrutia. Bergaran, urriaren 24an. 64 urte.
Ricardo Etxaniz Altuna. Oñatin, urriaren 24an. 83 urte.
Anton Lasuen Urkia. Arrasaten, urriaren 25ean. 66 urte.
Francisca Fernandez Navarro. Arrasaten, urriaren 25ean. 79 urte.
Barbara Albizu Belarrain. Bergaran, urriaren 26an. 84 urte.
Victoria Gutierrez Olaiz. Bergaran, urriaren 26an. 83 urte.
Benita Otxoa de Angiozar Berriolope. Bergaran, urriaren 27an. 79.

Rafa Jaso bergararrak eta **Nagore Altzelai**k bi urte bete dituzte ezkonduta urriaren 26an, martitzenean. Egun horretan Nagoreren urtebetetze eguna ere izan da. Zorionak, bioi, familiaren partetik.

Luis Dorado eta **Patricia Herrero** arrasatearrak joan den zapatuan, urriaren 23an, ezkondu ziren Bergarako udaletxean. Zorionak, bikote, zuen lehengusu Gorka eta Unairen partetik.

Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez GOIENKARIAren ordezkaritzetako batera.

GOIENKARIA
Astero 21.500 etxetan.
Eskelen prezioa: 80 €.

URTEURRENA

Ana Mari Letamendi Garai

2003ko urrixaren 26xan hil zan

Datorren zapatuan, urrixaren 30ian, arratsaldeko zazpiretan izango da urteurreneko mezia Oñatiko San Migel parrokixan.

Eskerrak bertaraketan zariein danoi.
Oñatin, 2004ko urrixaren 29xan.

MEZA

Jose Antonio Larrañaga Urrutia

Bergaran hil zen 2004ko urriaren 24an, 64 urte zituela.

Haren aldeko meza domekan, urriaren 31n, 11:00etan, Bergarako Labegaraietako San Jose elizan.
Bertaratuko zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

—

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, mila esker.

Bergaran, 2004ko urriaren 29an.

Juan Joxe Lizarraldek gaur, egubakoitza, hartu du erretiroa. Hainbat urtetan Oñatiko Fagor Altzariak enpresan lanean ibili ondoren, atseden hartuko du zapatutik aurrera. Bere lankideek bertso eta guzti zoriondu nahi dute. Honako hau da bertsoa:

"Elizan bada mila beato
eta hiru mila santu
praileek ondo bereizten dute
zer den ta zer ez bekatu
Behin Villasantek esandakoa
behar dizugu aipatu
EGA atera baino lehenago
ezin dela jubilatu".
(Doinua: *Pello Joxepe*)

HITZGEZIDUNAK

Luma



	Urrin *Izena		Nekadura Liskarra, istilua			Karrantzako mendia
	Ganbela, uhaska Bizi garen planeta					
Alkohola duena *Deitura		Onddo eta alga elkarte Begiratokia				
					Elektroia Gorputz atala	
Gar Futbolean, tanto				Zein Azaldu		
			Abiatzea Rubidioa			
Harria lantzen du Tristeak						Koru
6. musika nota Naizen hau			Egiptoko jainkoa Anfibio mota		Bokal borobila Akuri	
		Kanpo, landa Zakur			Kriptona Rhesus faktorea	
Kantitatea, zenbatekoa Ero						
				Zendu		

BILABILA7

UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaiak argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

KRIADA BEREZIA

Maskuelonera agertu ei zan neska gazte bat kriada izateko asmotan. Baiña kondiziño asko ipintzen zebazen orretarako. Etxian euki bihar ziran aspiradoria, labaplatos mekanikua, eta abar. Ordu kontuan be exijentzia haundixak.

Maskuelok, ostera, honako hau esan zotsan:

- Ta zuk, gazte, badakizu pianua joten?

- Ez.

- Ba orduan ez zaitxugu bihar.

UR ESNIA

Esne saltzaile bat denuntziau zeben esniari ur asko botatzen zetsalako. Esne saltzailiak multia pagatzeko orduan, diño:

- Ta zuek zelan dakizue gure esniak hainbeste ur daroiala?

Orduan, sekretarixuak:

- Konprobauta daok: eskalluak, esnetan, segitxuen iltzen ditxuk eta uretan bizi. Ta ara, zure esne marmitxan, urrengo egunian be, bizi-bizirik jeuazen.

EZETZASMATU!

Estepan Plazaola

Zein herritakoa da dantza-talde bakoitza?

Oraingoan bailarako lau dantza-talderen izenak dakartzagu: Loramendi, Oinarin, Oskarbi eta Lore Gazteak. Ia asmatzen duzun bakoitza zein herritakoa den. Errazago izan dezazun hona hemen herrien zerrenda ere:

- Elgeta
- Antzuola
- Arrasate
- Aretxabaleta

Erantzun zuzena: Elgeta: Oskarbi; Antzuola: Oinarin; Arrasate: Lore Gazteak; Aretxabaleta: Loramendi.

SOLUZIOAK



Z	O	R	O	●	H	I	L
●	K	O	P	U	R	U	A
N	I	●	A	T	●	K	R
●	L	A	●	R	A	●	O
G	O	I	B	E	L	A	K
●	H	A	R	G	I	N	●
G	O	L	●	A	B	I	O
●	K	A	R	●	N	O	R
A	L	T	U	N	A	●	E
●	A	●	L	I	K	E	N
			●	A	S	K	A
			●	U	●	N	●

ASTEKOHOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkartea

ARIES
martxoak 21-apirilak 21

Lan aukera berriak; izan ere, dagoeneko lortu duzu aurretik zeure buruari jarri zenion helburua. Hori dela eta, zure hurrengo helburuak zehazteko hausnarketa egin beharko duzu.

TAURUS
apirilak 22-maiatzak 21

Une honetan, zure ingurukoekiko hartu-emana ez da oso ona; izan ere, uste duzu ezer gutxi esan barik jendeak ulertzen zaituela. Komunika zaitez.

GEMINI
maiatzak 22-ekainak 21

Hobekuntzak lanean, bai soldatari dagokionez bai karguari dagokionez ere, mailaz igoko zaituzte-eta. Bestalde, ideia onak izango dituzu, eta horiek praktikan jartzen badituzu, emaitza onuragarriak aterako dituzu. Azkenik, zaindu eztarria.

CANCER
ekainak 22-uztailak 22

Estresak jota ibiliko zara; izan ere, lankideek ardura ugari zure esku utziko dituzte, eta lanez gainezka ibiliko zara. Hortaz, ahalegin zaitez kontuak argitzen, nork bere lana egin dezan.

LEO
uztailak 23-abuztuak 22

Amodioan oso une atseginak: une atsegin hori aprobetxa zenezakete gaizki ulertze batzuk argitzeko bikotekidearekin; eta bikotekiderik ez daukazuenok neska/mutil bat ezagutuko duzue lanean, eta harreman polita hasi harekin.

VIRGO
abuztuak 23-irailak 22

Atzerapenak zure proiektuetan; hori dela eta, ohi baino haserrekorrago egongo zara, eta zure ingurukoek jasoko dute zure amorru osoa. Horren ondorioz, zugandik aldenduko dira. Edozelan ere, ez kezkatu atzerapen horiengatik, eta aprobetxa ezazu akatsak zuzentzeko.

LIBRA
irailak 23-urriak 22

Arazoak lanean, kontzentrazio falta dela-eta; horren ondorioz, hanka-sartze bat baino gehiago egingo dituzu, eta errieta egingo dizute. Bestalde, krisialdia amodio kontuetan; izan ere, ez dakizu zer gura duzun. Azkenik, bitaminak hartu.

SCORPIUS
urriak 23-azaroak 22

Ohi baino lan gehiago egingo duzu, eta denbora laburragoa pasatuko duzu familiarekin; horren ondorioz, zuon arteko hartu-emana hoztu egingo da. Edozelan ere, esfortzuak merezi izango du, emaitza ezin hobeak lortuko dituzu-eta.

SAGITTARIUS
azaroak 23-abenduak 21

Ohiz kanpoko gastu bat egin beharko duzu etxean; hori dela eta, hil honetako aurrekontua kolokan geratuko zaizu. Bestalde, lagun batek oso lan-proposamen onuragarria egingo dizu.

CAPRICORNUS
abenduak 22-urtarrilak 20

Nahiko aste lasaia izango denez, aprobetxa ezazu osasun azterketa egiteko, eta, bide batez, azkenaldian dituzun osasun arazoak konpontzeko. Bestalde, autoarekin arazoak izango dituzu, eta, horren ondorioz, errebisioa egin beharko diozu.

AQUARIUS
urtarrilak 21-otsailak 20

Oraingo astean, nahiz eta jende asko izan zure inguruan, bakarrik sentituko zara. Bestalde, lanez gainezka ibiliko zarenez, ezin izango dituzu hartu horrenbeste espero zenituen oporraldi labur horiek.

PISCIS
otsailak 21-martxoak 20

Negozio onak proposatuko dizkizute. Itxura baten diru mordoxka aterako duzu ezer gutxi inbertituta, baina argi ibili, guztia ez da-eta urre izango. Ondo aztertu proposamenok.

GIPUZKOAKO
ASTROLOGI ELKARTEA

Azaroaren 2a: 019 zozketa

Harpidedunen txokoa

Zorionak, Olaia!

Olaia Sasiain aretxabaletarrari tokatu zaio *Asteleheneko Goienkaria*-k zozkatutako Fiteroko bainuetxerako asteburu baterako egonaldia. Oso pozik hartu du berria Olaiak. Ama Juanirekin joango da Fiterora, abenduan.

"Merezi du harpidedun egitea, ze, gainera, sariak irabaz ditzakezu"

Zela hartu duzu berria?

Mezu bat neukan telefonoan, eta hala jakin nuen. Ustekabe atsegina izan da sariarena, ez nekielako horrelako zozketak egiten zirenik *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedunen artean.

Egona zara inoiz bainuetxe batean?

La Perlan, baina behin bakarrik. Probatzera joan nintzen, eta oso ondo ibili ere, gustatu zitzaidan.

Norekin joango zara Fiterokora?

Ama eta biok joango gara abenduan.

Noiztik zara *Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedun?

Uda aurretik. Telefonoz deitu ziguten eta harpidedun egitea erabaki genuen.

Zergatik egin zinen harpidedun?

Interesatzen zaidalako asteburuan gurean zer gertatzen den. Batez ere, musika ekitaldien kronikak-eta gustatzen zaizkit. *Asteleheneko Goienkaria* astero jasotzen dugu etxean, eta irakurtzen dut, gustatzen zait, ondo dago, bai.

Danbakaren berririk baduzu?

Bai. Ondo iruditzen zait, batik bat hemengo taldeei aukera ematen dielako.

Animatuko zenuke jendea harpidedun egitera?

Bai, bai, merezi du. Gainera, sariak irabaz ditzakezu... Gertatzen da nire inguruko lagun gehienak badirela harpidedun.

Olaia Sasiain irabazlea, Eroski Bidaiak agentziako Arrasateko bulegoko Marisa Untzuetarekin.

018 zozketa saridunak

Urriaren 25ean behean datozen sariak zozketatu ziren. **Zure izena zerrendan badago, zorionak!**

Azaroak 5eko DANBAKA kontzerturako sarrerak.
- Lourdes Ugalde (Oñati)
- Blanca Cebrian (Bergara)
- Leku-Berri jatetxea (Antzuola)
- Manuel Urzelai (Oñati)
- Xabier Infante (Oñati)
- Heriberto Zubia (Arrasate)
- Alfonso Gorroñogoitia (Arrasate)
- Iñaki Aginagalde (Bergara)

JAM aretoan izango den THE SCIENTIST kontzerturako sarrerak.
- Alberto Samaniego (Bergara)
- Alejandro Mujika (Antzuola)
- Jasone Orbegozo (Eskoriatza)
- Mikel Elorza (Arrasate)
- Pedro Mari Zubizarreta (Aretxabaleta)
- Andoni Axpe (Arrasate)

JAM aretoan ospatuko den HALLOWEN GAUERAKO eta FANGORIAren kontzerturako sarrerak
- Alejandro Errasti (Bergara)
- Patxi Zubizarreta (Aretxabaleta)
- Nekane Ayastui (Arrasate)
- Edorta Ayastui (Arrasate)
- Ainhoa Nogales (Bergara)
- Silvia Ezpeleta (Bergara)

Urriaren 25eko sariak

- KODAK DC3200 kamera digitala.
- Sei gonbidapen EIBAR-TERRASA partidua ikusteko, saridun bakoitzarendako bi.
- Hamar gonbidapen, saridun bakoitzarendako bi, azaroaren 5ean Elgetako Espaloia antzokian egingo den DANBAKA kontzerturako.
- 'ASTO BAT HYPODROMOAN' umeendako liburua.
- 'ZEU IDAZLE!' PCrako jokoa.
- 'LONDRESEN NAGO AITONAREKIN' umeendako liburua.

Baldintzak

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea.
- Irabazleekin harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.
Urte amaierara arteko harpidetza: **10** €

ASTELEHENEKO **Goienkaria**

astelehenean, **aste bukaera osoa**

Filma
ASTEBURUA / ***IKUS PROGRAMAZIOA**

Juanba Berasategiren 'Ipar haizearen erronka' film luzea

Asteburuan marrazki bizidunekin egindako film dibertigarria izango duzue GOITBn: *Ipar haizearen erronka*. Juanba Berasategik eginiko filmak hiru protagonista ditu: Annie eta Peiot bikiak eta Watuna Mic-Mac tribuko buruzagiaren semea.



'Danbaka'
MARTITZENA 2 / **21:30 eta 23:00**

Matxura taldearen emanaldia Elgetako Espaloia antzokian

Matxura taldeak ekitaldi bikaina egin zuen Elgetako Espaloia antzokian. Zuzenean ikusteko aukera izan ez zenutenok martitzenean *Danbaka* saioan izango duzue kontzertuaz oso-osorik gozatzeko parada.



'Oinak izarretan'
MARTITZENA 2 / **21:00 eta 22:30**

Gasherbrum II: adiorik ez Felix Iñurrategi mendizaleari

Kapitulu tristea oraingoa. *Oinak Izarretan* saioak Gasherbrum II. mendian grabatutako irudiak ekarriko dizkigu gogora. Iñurrategi anaiek ondo menderatu zuten Himalaiako mendia. Bueltan, baina, Felixek istripua izan zuen.

'Danbaka'
EGUENA 4 / **21:30 eta 23:00**

Oñatiko Amonal taldearen kontzertua 'Danbaka' saioan

Oñatiko Amonal taldearen kontzertua eskainiko du GOITBk egunean. *Danbaka* saioan izango da hori, 21:30ean eta 23:00etan. Amonalek garai bateko punk doinuak eskaini zituen Elgetako Espaloian. Kontzertu bikaina eman zuten.

TELEBERRIAK

AEBetako bozketei arreta berezia Euskal Telebistan

Euskal Telebistak AEBetako hauteskundeei arreta berezia eskainiko die. Asteon Olatz Arrieta korrespontsalak egindako erreportaje sorta izan da ikusgai. Horrez gainera, urriaren 31tik azaroaren 2ra bitartean, AEBetatik, hauteskundeen berri emango dute albistegietan Olatz Arrietak berak, Maribel Aizarnak eta Juan Carlos Etxeberriak.

Caixak eta EITBk hitzarmena sinatu dute Betizu kluberako

EiTBk eta Caixak lankidetza akordioa sinatu dute. Hitzarmenaren bidez, azaroaren 8tik aurrera gazteek Caixaren Izar Libreta Betizu izeneko aurrezki libreta lortu ahal izango dute, gaztetxoei aurrezten erakusteko helburuarekin. EAEko eta Nafarroako 4 eta 14 urte bitarteko umeendako izango da libreta hau. Gainera, aurrerantzean Caixaren edozein bulegotan egin daiteke Betizu klubaren bazkide txartela.

Pausokaren ikastaroa komedia lantzeko

Pausoka Eskolak antolatuta, telebista eta komediaren inguruko ikastaroa izango da azaroaren 8tik 20ra. Oscar Terol *Vaya Semanita* saioko aurkezleak zuzenduko du ikastaroa. Ikastaroa kamera aurrean komedia landu nahi dutenendako edo telebista barrutik ezagutu nahi dutenendako izango da. Interesatuek honako telefonoan jaso dezakete informazioa: 943 29 71 11.

ASTEKOPROGRAMAZIOA/ Urriaren 29tik azaroaren 4ra

EGUBAKOITZA 29	ZAPATUA 30	DOMEKA 31	ASTELEHENA 1	MARTITZENA 2	EGUAZTENA 3	EGUENA 4
13:50 **Marrazki bizidunak:** Kalimero. 14:15 **Berriak** 14:45 **Behazulo** 15:15 **Danbaka:** Jim TNT bakarlaria. 15:45 **Berriak** 16:15 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:25 **Danbaka** 20:30 **Marrazki bizidunak:** Kalimero. 21:00 **Ilunpean** 21:30 **Gure lanbide zaharrak** 22:00 **Berriak** 22:25 **Danbaka** 22:30 **Ilunpean** 23:00 **Gure lanbide zaharrak** 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**	11:00 **Behazulo** 11:35 **Danbaka:** Potemkin. 12:10 **Marrazki bizidunak:** Kalimero. 13:30 **Oinak izarretan:** Gasherbrum I, Rustamen erreinua. 14:00 **Filma:** Ipar haizearen erronka. 15:15 **Ilunpean:** Gari abeslaria. 15:45 **Danbaka:** Jim TNT bakarlaria 16:30 **Bi eta bat:** Brasil. 17:00 **Iragana gogoratuz** 17:30 **Klip@** 17:45 **Behazulo** 18:15 **Danbaka:** Potemkin. 18:45 **Danbaka:** Jim TNT bakarlaria. 19:30 **Emisio amaiera**	11:00 **Filma:** Ipar haizearen erronka. 12:15 **Marrazki bizidunak:** Animalikeriak. 13:10 **Danbaka:** Jim TNT bakarlaria. 13:55 **Oinak izarretan:** Gasherbrum I, Rustamen erreinua. 14:25 **Ilunpean:** Gari abeslaria. 15:00 **Klip@** 15:15 **Gure lanbide zaharrak:** Larrugintza. 15:45 **Filma:** Ipar haizearen erronka 17:00 **Danbaka:** Potemkin. 17:35 **Bi eta bat** 18:05 **Ilunpean** 18:35 **Iragana gogoratuz** 19:00 **Emisio amaiera**	11:00 **Marrazki bizidunak:** Kalimero. 11:35 **Danbaka** 11:40 **Klip@** 12:00 **Marrazki bizidunak:** Animalikeriak. 13:00 **Klip@** 13:15 **Danbaka** 13:20 **Ilunpean** 13:50 **Filma:** Ipar haizearen erronka. 15:00 **Gure lanbide zaharrak** 15:30 **Iragana gogoratuz** 16:00 **Klip@** 16:15 **Danbaka** 16:30 **Marrazki bizidunak:** Kalimero. 17:00 **Ilunpean** 17:30 **Danbaka** 17:45 **Emisio amaiera**	13:50 **Marrazki bizidunak:** Animalikeriak. 14:15 **Berriak** 14:40 **Danbaka** 14:45 **Ilunpean** 15:15 **Gure lanbide zaharrak** 15:45 **Berriak** 16:10 **Danbaka** 16:15 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizidunak:** Animalikeriak. 21:00 **Oinak izarretan:** Gasherbrum II: Adiorik ez Felix. 21:30 **Danbaka:** Matxura. 22:00 **Berriak** 22:30 **Oinak izarretan** 23:00 **Danbaka** 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**	13:50 **Marrazki bizidunak:** Kalimero. 14:15 **Berriak** 14:45 **Oinak izarretan** 15:15 **Danbaka** 15:45 **Berriak** 16:15 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:25 **Danbaka** 20:30 **Marrazki bizidunak:** Kalimero. 21:00 **Iragana gogoratuz:** Baserritarrak eta jauntxoak. 21:30 **Bi eta bat** 22:00 **Berriak** 22:25 **Danbaka** 22:30 **Iragana gogoratuz** 23:00 **Bi eta bat** 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**	13:50 **Marrazki bizidunak:** Animalikeriak. 14:15 **Berriak** 14:40 **Danbaka** 14:45 **Iragana gogoratuz** 15:15 **Bi eta bat** 15:45 **Berriak** 16:10 **Danbaka** 16:15 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizidunak:** Animalikeriak. 21:00 **Behazulo** 21:30 **Danbaka** Amonal. 22:00 **Berriak** 22:30 **Behazulo** 23:00 **Danbaka** Amonal. 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**
21:00 **Ilunpean**	16:15 **Danbaka**	11:00 **Ipar haizearen erronka**	16:30 **Kalimero**	21:30 **Danbaka: Matxura**	21:00 **Iragana gogoratuz**	21:30 **Danbaka: Amonal**

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: **goitb@goiena.com** • Telefonoa: **943 71 23 95**

KAMERAAURREAN

"Baliteke gaurkoa izatea nire azken asanblada. Lau urte lanean ibili eta gero, iritsi zait Mendi Federazioko presidente moduan agur esateko ordua".

Antxon Bandres / Mendi federazioko presidentea
'Berriak' (2004/10/25)

"Debagoieneko etorkin ez kooperatiboaren kasuan, ez da egon integrazio kulturalik eta ideologikorik. Horixe da liburuan idatzitako ondorioetako bat".

Martin Calvo / Autorea
'Berriak' (2004/10/27)

DANBAKA
DEBAGOIENEKO I. MUSIKA LEHIAKETA

Emanaldiak GOITBn

Astelehena, 1 • 20:25 eta 22:25
Matxura taldearen aurkezpen saioa.

Martitzena, 2 • 21:30 eta 23:00
Matxura taldearen kontzertua.

Eguaztena, 3 • 20:25 eta 22:25
Amonal taldearen aurkezpen saioa.

Eguena, 4 • 21:30 eta 23:00
Amonal taldearen kontzertua.

Egubakoitza, 5 • 20:25 eta 22:25
Asteak eman duena gainbegiratuko dugu: Matxura+Amonal. Horrez gain, Ikuslearen sariaren gaineko sailkapenaren eta eguneko kontzertuaren berri.

SAN FELIPE APOSTOL

ELKARLAGUNTZAKO ELKARTEA

Gipuzkoa etorbidea 39, 1 C. ARRASATE

San Felipe Apostol Elkarlaguntzarako Elkartearen 106. urteurrena dela eta, Zuzendaritza batzordeak bazkideei eta herritarrei oro har ondoan aipatzen diren aspektuen berri eman nahi die.

1. ERAKUNDEA.
San Felipe Apostol erakundea IRABAZI ASMO GABEKO elkartea da, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzaren Departamentuan erregistratuta dago, **1898an sortu zen** eta **12.600 bazkide** ditu.

2. ZERBITZUAK
a) Estatu barruko lekualdatzea; heriotza gertatu den lekutik egoitza duen lekuraino.
b) Hilkutxa.
c) Hildakoa jantzi.
d) Hainbat gestio: eskelak, mediku-ziurtagiria, epaitegia, eta abar.
e) 450 euroko laguntza ekonomikoa, hainbat gastu ordaintzeko.
f) 540 euro jasotzeko eskubidea, gure zerbitzua erabiltzeari uko eginez gero.

3. SARRERA KUOTAK.
40 urtera arte doan.
Adin horretatik gora KONTSULTATU.
Tel.: 943 79 16 82
Alberto Ojanguren
Kontxi Bedia

4. URTEKO KUOTAK
Titularrak 19 €
Ezkontidea 17 €
Onuradunak 9 €

Zuzendaritza batzordea

Soilik Harategi hauetan

Baimenduak: Euskal Okela saltzeko Harategi Baimenduak.
Artisauak: Baimenduak izateaz gain, Euskal Okelarekin eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin konpromiso handiagoa duten harategiak.

ANTZUOLA
GABILONDO ARREGI HARATEGIA
KALEBARREN, 14

ARAMAIO
BIXENTE L. AZPILIKUETA HARATEGIA
BIXENTI GOIKOETXEA PLAZA, 8

ARRASATE-MONDRAGON
LANDALUZE HARATEGIA
ITURRIOZ, 7

JOSE MARI SALEGI HARATEGIA
OLARTE KALEA, 20

AZPILIKUETA HARATEGIA
DOCTOR BAÑEZ, 10

AZPILIKUETA HARATEGIA
ERGUIN, 12

KORTABERRI HARATEGIA
ANTXO ABARKA, 1

BERGARA

ANDRES MUJIKA HARATEGIA
DOMINGO IRALA, 5

BIXAIN HARATEGIA
AZOKA PLAZA PTO. 5-6

ALDAI HARATEGIA
ESPOLON, 12

ESKORIATZA

ZUBIA HARATEGIA
SANTA ANA, 11

OÑATI

ANTXON HARATEGIA
SAN LORENTZO, 5

TARSICIO HARATEGIA
PORTU KALEA, 2

GARAY HARATEGIA
MAIATZAREN LEHENA PLAZA, 2

SUPER BM OÑATI-HARATEGIA
OLAKUA AUZOA, 8

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

Argitaratzailea: Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 Arrasate
Egoitza nagusia: **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
Ordezkaritzak: **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
Aretxabaleta 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
Publizitatea: **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 18.228 ale • **Difusioa:** 18.185 ale.
HARPIDETZA: **943 79 21 00** • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

EGUBAKOITZA, 2004ko urriaren 29a

Atzeskua

OIHANA ELORZA

Mikel Ruiz/ Enterradorea

Sartu-irten handia dago egun hauetan kanposantuan? Bai. Astelehenerako familiakoen hilobiak txukun eta polit ikusi nahi dituzte, eta horretara datoz batik bat.

Zer ekartzen dute?

Gehienek loreak ekartzen dituzte. Oso lore dotoreak eta koloretsuak ekartzen dituzte. Saiatzen dira aurreko urtean jarri zuten lore mota bera ez eramaten. Batzuek lorontzietan ekartzen dituzte, sustrai eta guzti, eta beste batzuek, lore sortak.

Loreak jarri aurretik, ordea, hilobia garbitzen dute. Eskutrapuak eta xaboia ekartzen dituzte eta ingurua txukuntzen aritzen dira.

Kandelak ere ekartzen dituzte?

Bai, baina ez dituzte loreekin batera hilobiaren gainean jartzen. Erraz itzaltzen dira, batez ere aste honetan ibili den haizearekin. Gehienek, kanposantuan bertan dagoen kapila barruan pizten dute kandela, babesean.

Urteko gainerako egunetan etortzen da jendea?

Ez Domu Santu egunean bezain beste, jakina, baina bai. Paseatzera joateko bidea bertatik pasatzen da, eta asko sartzen dira. Batzuk, gainera, egunero-egunero etortzen dira. Baita jende gaztea ere.

Noiz arte zaintzen dituzte loreak?

Kanposantura etortzeko ohitura dutenek oso ondo zaintzen dituzte, urte osoan. Beste batzuek etxe ondoan landatzen dituzte gero, berriro indarra hartzeko. Ni, hala ere, hementxe aritzen naiz egunero, kanposantua zaintzen eta garbitzen, eta hondatutako loreak, landareak eta sortak zaborretara botatzen ditut.

Egia da loreak eta ontziak osten dituztela?

Gertatu dira horrelakoak ere, bai.

Noiz hasi zinen enterradore lanetan?

Azken bi urteotan bakarrik dihardut, baina duela 15 bat urte hasi nintzen; lehenengo, enterradorearen laguntzaile modura.

Eta ondo moldatzen zara bakarrik?

Hileta egunetan, adibidez, arrebak laguntzen dit, baina bestela bakarrik ibiltzen naiz, bai. Ez da hain lan gogorra. Hasieran errespetua eta beldurra ere izaten zaio batzuetan, baina gero ohitu egiten zara eta beldurra uxatzen duzu.

Hona datozen guztiek agurtzen dute elkar, eta berriketan ere egiten dute, baina isila da kanposantua, eta askotan irratia piztuta egiten dut lan.

Hilobi asko zaharrak dira, aspaldikoak.

Konpondu egin beharko ditugu horiek. Oraingo hilkutxak oso handiak dira eta hilobi askotan ez dira sartzen. Lehengo hilkutxak txikiagoak ziren.

Asteburuan eta astelehenean lan egin beharko duzu, ezta?

Bai. Martitzenean dena txukundu eta eguaztenean hartuko dut atseden.

“Batzuek oso ondo zaintzen dituzte loreak, zaborretara botatzen ditut osterantzean”

“Oraingo hilkutxak oso handiak dira eta hilobi batzuetan ez dira sartzen; hilobi zaharrak konpondu egin beharko ditugu”

“Beste toki askotan bezala, hemen ere gertatu dira lore eta lorontzi lapurretak”

► *Oñati / 35 urte / Arrebak laguntzen dio batzuetan*

PIPERRAUTSA

Inperioan

Datorren astean erabakiko da nor izango den hurrengo lau urteetan AEBetako presidente. Berdinduta agertzen dira inkestetan Bush eta Kerry, idazten ari naizen astelehen honetan. Gehienetan Bush ibili da apur bat gainetik, eta oraintxe lehenengoz hartu omen du gaina Kerryk. Airean dago txanpona, edozein aldetara jausi daiteke.

Inoizko jakin-minik handiena piztu dute AEBetako hauteskundeok. Eta ez da harritzeko. Uste dut lehen aldiz hedatu dela munduan inperio baten parte gareneko kontzientzia. Ohartzen ari gara zenbateraino eragiten diguten gugandik urrun hartutako erabakiak, noraino gauden kontrolatu ezin ditugun agintarien mende. Bizpahiru urte nahiko izan dira ohar gaitezen gure botoa, sarriegi eskatzen diguten botoa, ez dela iristen erabakigune nagusietara.

Horregatik eskatzen dut AEBetako hauteskundeetan botoa emateko eskubidea. Ez delako hautatzen hango presidentea, baizik eta inperioko burua.

Eta aukerarik banu, egingo nuke Kerryren alde, Bush kentzearren. Ez diezagun alproja horrek kalte gehiagorik egin. Inperioak har dezan patxada apur bat, nola hartu genuen kolonia honetan Aznar kenduta.

Hori esanda, metropolian dugu arazoa. Estatubatuarren erdiak Bush maite du, askok Mooreren pelikula ikusi arren. Horregatik, ezinezkoa zaigunez inperiotik aldegitea, gutxienez eman diezagutela (Bush) botatzeko eskubidea.

MIKEL IRIZAR